

ANAITASUNA

205 zenb.

1971. otsailaren 15 ekoa

Jardin Txikerra, 1 BILBAO-12
Tel. 43 18 37

EZ KANTA EZ DANTZA



Batzuei atsegin zale, bizitzaren alde llunak bakarrik erabili eta erakustea, eta honen tristura ta pesimismoa dakar berarekin.

«Ez jaia, ez dantza,
Herria lutoz dago ta.
Ez jaia, ez dantza,
triste daukat bihotza.»

«Herria lutoz dago»: Konforme. Triste daukat bihotza»: Zergatik? «Ez jaia, ez dantza»: Zergatik?

Herriaren egoera larriak ez du tristura ekarri behar, derrigorrezko ondorio bezala. Gure erantzunak, gure ekintzak, ez du zergatik hain pesimista, hain ezezkorra izan behar. Zutik nahi ditugu euskaldunak, eta ez tristuraz beterik bazter batean etzanda.

Benetan disko polita dela Michel Etxegaraik abestutakoa; baina barka lezadazu kantu horren hitzekin bat ez banator.

Aurrean dut ANAITASUNAREN 203. alea, eta bat nator Algotako berri emailearekin: «Noiz hasiko gara herriko, udaleko* arazoez arduratzen? Gure zaharren esaera bat da: lan egiten dabenek zangoa sar leikee, eta ezer egiten ez dabenek... beti arrazoia».

Beraz*, Herriaren lutoaren aurrean, postura bakar bat onartzen dut; ekintzarena. Eguneroko lanak bakarrik emanen* dauku zoriona.

Lan egin, gogor lan egin. Eta egin jai eta egin dantza. Baina, kontuz, jai eta dantza lanaren sari legez*. Soldata, lan egin ondoren hartzen da, ez lehenago.

Nik ez ditut inoiz onartu, atxakia honeatik edo horregatik euskal jalel egindako boikotak. Atxakia hoik direla ta, beste erantzun bat eman behar da, baina inoiz ere ez eusal jai bat ez egitea.

Zu, euskaldun hori: zure denboraren zati bat, zure diruaren zati bat euskal kulturak behar du. Zer ematen diozu zeure denboratik, zeure dirutik?

Eman lezozu Herriari zeure denboratik ahal duzun guztia, zeure dirutik berdin. Eta orduan egin zenezake, egin behar duzu jai eta dantza.

XABIER GEREÑO

dauku, **dousku**
leozu, **deutsazu**
lezadazue, **eidazue**
leozu, **eiozu**
zaie, **jake**
zenezake, **zeinke**

Durangoaldea

Eskualdeko herri ta auzuneak, urteari hasiera emateaz batera hasi dira euren jaiak ospatzen. Urtarrilaren* 17an, Berrizko San Antonak. Beti bezala, herri honetako jaiak Idi probetan finkatuak izan dira. Hortik kanpo, dantzariak, soinua, eta abar. Jaietarako programak kanpotik ondo apainduak, baina barruan hutsa besterik ez. Beste kezka bat ere entzun dogu herriko gazteen artean: besteen asmo eta eritzia kontuan hartu barik, udalak* dana eratu eta antolatu, eta, beharra* egiteko orduan, laguntasuna gazteei eskatu. Jokabide lasaia; baina, jaiak biztu gura badira eta laguntasuna nahi bada, beste bide bat hartu beharko da.

Urtarrilaren 20an, Iorretako Baxika auzunean, San Sebastian eguna ospatu zan. Meza, ezpata dantzariak, asto probak eta soinua. Beste urteetan baino jende gutxiago egon ei* zan.

1971. urtearen barruan daroaguzan egunetan, berri pozgarri bi. Zaldibarren eta Abadiñoko Trañan, ikastola berriak zabaldu ditue, 27 eta 21 umegaz. Honeekaz, zortzi herri dira eskualdean, ikastola daukenak: Ermua, Berriz, Elorrio, Durango, Iorreta Zornotza eta lehen esandako biak. Zornotza, nahiz eta eskualde honetakoa ez izan, arazo honetan bertokoakaz dago batuta. Ikastola honeek, 20 andereño eta 610 ume batzen ditue.

Tronperriko lehendakaria izan dan Benito Llona jauna, Durangon hil izan da, urtarrilaren 27an.

Ermuak eskolen beharrian haundia dauka. Gutxienez, bi gehiago behar ditu, dagoen urritasuna astintzeko. Horretarako udalak* daukan eragozpenik haundiena, lur sailen jabetasunik eza ei da; baina, hala ere, arazoa 10 hilabete baru konponduko dala uste da. Herri honetako udalak, orain dala denbora gutxi, Guardia Zibilen-tzako kuartel berri bat jasotzeko lurrak eskaini* zituan. Gizartean gauza bi dagoz, gazteak bide zuzenetik eroateko: kultura edo makila. Honetaz konturatuta, ermuarrek jakin dabe, arazo honi behiar dan erantzuna ematen. Ez?

Santa Ageda bezperan, eskualdeko ohiturari jarraituz, koplak kantatzen ibili ziren hainbat talde; euren artean, ba ziren ikastole-tako ume taldeak ere. Egia esan, egun hau umeentzat baino gazteentzat izan da gehiago. Haurrek* ba dauke, euskal ohituretan, urtearen barruan kantatzen irtetzeko egun berezi bat, *Eguen Zuri* deritxona, ihaute* aurreko eguna edo osteguna. Hemen dozue horre-arririko kanta bat, Azkue jaunak Durangoaldean jaso ebana:

1. *Eguen Zuriko eguna,
Jaunak berea egina,
eskola mutilak ibilteko,
limosna on baten bila.*
2. *Hor goian goian goldia,
haren gainan belia;
etxe hontako nagusi jauna,
nekazari langillia.*
3. *Poltsan ba ditut errlal bi,
bata bestiarekin dira bi;
etxe hontako etxeoandriak
Ama Birjina dirudi.*
4. *San Kasiano Obispua,
eskola malsu jakituna,
Jesukristoren fedlagaitik
odola emon ebana.*
5. *Santua bitarte dala,
ez egizu izan okerrik;
orain ba goaz danok aurrera,
agur danori egnik.*
6. *Emongo bozu, emoizu;
bestela, ezetz esalzu.
Ate ondoan aizeak hartzen
amak ez gaitu bialdu.*

JOAN ANTONIO AROMA

Zornotza

Joseba Arrieta jaunaren mintzaldia

Joan dan urtarrilaren* 29an, Zornotzako gurasoei (ikastole-tako umeen gurasoei, alegia*) berba egin izan deutse Joseba Arrieta jaunak, gai honi buruz: «Ikastolen sorrera eta gurasoen egoera». Nahiko guraso bildu* ziren. Berbaldia euskeraz eta erderaz izan zan, aurrerantzean euskera hutsez egiteko asmoz. Ona iruditu jakun hizaldia; beharbada, elkarrizketa gutxi egon zan.

Bittor Egurrola hizlari ta abeslari

Urtarrilaren* 30ean, Zornotzako Mutilen Ikastetxean, Bittor Egurrola izan genduan hizlari eta kantari. Berbaldiaren gaia, «Atzo, gaur eta bihar euskal abesti berria». Gero, kanta bakoitzari azalpentxo bat emanez, zazpi abesti eskaini* eutsezhan han elkartu ziren neska-mutilei; gatzetxoegiak ziren, elkarrizketa egin ahal izateko.

Aita Karmelo Garmendia

Santa Ageda egunerako, herriko neska-mutil talde bat gertatzen ari* izan da Aita Karmelo Garmendia, eta bertso polit batzuk irakatsi deutsez. Ea benetan geureganatzen ditugun hain bertso ederrok:

**Euskal Herriko gaztedi berri,
Zornotzako udaberri,
geure Herriko bihotz gazteak
behar doguz ernai jarri.
Negu beltz honek izango ote dau,
ondoren, udaberria,
ikusi daigun geure Herria
berriro lorez jantzia.**

Herritar bat.

Elgoibar

Artikulurik onenak

ANAITASUNA, 203. zenbakia.

Lehenengo artikulua: «Ikastolak eta euskera batua», Loiolako agiria.

Asko pozten gaitu irakasleen erabaki honek. Iruditzen zaiku, ikastole-tarako euskera batuari ez zaiola nahiko garrantzirik ematen. Gaur, ikastole-tako ume eta irakasleen eskuetan dago euskeraren arloa. Pedagogiazko era berriak sartu, materiala berri, ikastolak jantzi: hauxe da guztion lana, beste zenbait bilera eta alferrikako jardunaldi alde batera utzita. Heldu zaiku honetaz jabetzeko garaia, beste eskolak baino beherago geure ikastolak laster ikusi nahi ez baditugu.

Zera ere iruditzen zaiku, aldizkariak kursillo eta pedagogiazko jardunen berri ematea komeni lizatekeela, gurasoek eta gainerakoek arazo guztien berri jakin dezaten. Egia esen, aurrera bultzatu baino, atzera eta kontra gehiago egin dute aldizkariak, ANAITASUNA eta besteren bat kenduz gero.

Legalizatu berri den Elgoibarko gure ikastolako arduradunei ere berdin esango genieke: irakasteko erak berritzen eta gaurkotzen joan daitezela; eta hau dena EUSKERA BATUAN, irakasleek eta beste euskal erakundeek erabaki duten bezala.

Bigarren artikulua: «Federazio kontzeptuaren krisia», Jose Azurmendi.

Honelako azterketak beharrezkotzat eta interesgarritzat daduzkagu. Hala ere, askotan, zail egiten zaiku Azurmendiren esannahia garbi jakitea; berak ideiak oso klaro ez dituelako; edo ta, gauzak garbi eta denek ulertzeko eran esatea komeni ez delako.

Bataioak erderaz

Bataioak erderaz egiten dira gure herriko elizan. Beste herrietan ez dakigu nola egiten diren, baina Elgoibarren honela egiten dira. Gurasoek sendoki eskatu behar lukete, hinbat lasterren gure hizkuntzan egin daitezela.

TALDEKO BESTE MARISABEL

Tolosa

Kultura arazoek ez dute erantzun haundirik gure herri honetan. Alegia*, gaur egun, hemen, musikak inoiz baino garrantzi guttiago daduka. Tolosako tradizio musikari eutsi nahi bazaio, eskerrak eman behar, Ruiz Bona jaunak zuzentzen duen herriko bandari eta «Escolanía Felipe Gorriti» deritzan taldeari. Lehenengo, jaietan ematen dituzten kontzertuen gatik; eta bigarren, hilabetean behin antolatzen dutenaren gatik. Horrela, «Escolanía»koek ekarrita, abenduan entzun ahal izan genuen Donostiako Kontserbatorioko kamarako orkesta, Escudero jaunak zuzendurik; eta hilabete honetan Michel Chauveton, biolinista frantsesa.

Tolosako gazteek ez dute leku haundirik, deporterik egiteko. Beotibar pelota lekua beti, palaz eta txisteraz jokatzeko dutenek okupatu dago, eta, noski*, mutikoak begira egon behar. Halaber*, lehen Kanpo Zaharra zeritzan zelaia, Eskola Sindikala bertan eraikitzeko hartu zuten, eta orain gazteek ez dadukate baloian jokatzeko leku dexenterik. Udalak* zerbait egin beharko du horren gain, mutilek deportea behar beharrezkoa dute ta.

Festa lekuak, berriz, etengabe zabaltzen ari dira. Orain dela denbora gutti arte, Tolosako gazteek, jaietan dantzari aritzeko*, plaza eta frontoia bakarrik zituzten. Azkeneko urtean, bi «boite» edo «discotèque» zabaldu dira, eta hirugarrenaren obrak aurrera doaz. Gainera, hiru festa leku hoik zein baino zein ederragoak dira.

Argi dago, bada, gure herri honetan zer doan behera eta zer gora. Diru ematen duena, boti gora.

SOZIALISMOAREN BARNEKO GORABEHERAK

Azken unada* honetan, Polonia ere bake gabe ikusi dugu. Huelga gogorretan ibili dira, eta ondorioak, sei heriotza, bostehun zauritu eta hainbat preso izan dira.

Frantses telebistan nahiko berri ikusi dugu gai honi buruz. Sueziako periodista bat bota egin zuten Poloniatik; eta periodista honek zioen*, polizia- eta gobernuaren errepresioa oso gogorra izan zela.

Telebista honetan zera ere azaldu zen, Poloniako alderdi komunistaren buruzagi batek ihes egin behar izan zuela, eta honek zioena* hau zen: «Herria ez doa sistema sozialistaren aurka. Sistema onartzen du. Baina gobernuak bere indarra herria bortxatzeko erabili du, eta herria gobernu horren kontra altxatu da».

Orain arte iraun duen gobernuaren buru, Gomulka jauna izan da. Eta gobernuaren Indarrak hamalau urtetan gorde ditu bere eskuetan.

1948. urte aldean, Poloniako stalinismo garaian, Gomulka espetxeratu izan zen lau urtetarako, bere ideia eta ekintza anti-stalinisten gatik.

1956. urtean gobernu stalinista desagindu zenean, gobernu berri bat sortu zen; eta buruzagi bezala Gomulka izendatu zuten.

Esperantza haundiarekin onartua izan zen gobernu berri hau. Lehenengo urteetan liberalizazio aide bat somatu zen. Agerkariak* askatasun osoa zuten, intelektuaren kritika zabaldua eta entzuna izaten zen, Eliza katolikoaren boza denek errespetuz aditzen zuten..., eta abar.

Baina gobernuaren esku zabalak ez zuen gehiegi iraun, eta, esku gogortzearekin, errepresioa etorri zen. Eritziak eta kritikak isil eraziak izen ziren berriro; intelektuak begi txarrez ikusiak otera* ere.

Kolakowski filosofoa alderdi komunistatik bota zuten, Unibertsidadean marxismo humanistari buruz hitz egin zuelako.

1967. urtean beste herri sozialista guztiak isilik egon zirenean, Gomulkaren gobernu Chinako iraultza* kulturalaren kontra azaldu zen.

Askatasuna ematera etorri zen Gomulka. Baina zer egin du?

Oraingo gobernuaz gauza gehiegi ezin ezan. Haren buruzagi Gierek jauna da, teknokrata liberal bat. Silesia aldean, ikatz mina askodun eskualde* horretan, asko altxatu du ekonomia, eta politikoko trebea da gainera.

Sozialismoaren iraultza aldatu behar dela ikusten ari* gara. Baina ba dirudi, jendea ez doala sistemaren aurka.

AMAIA LASA



DUNBALOTSEN AHIDURA

Arrotzak azaldu zitzaizkion atera. Eta nire lagunak —etena zegoen nire laguna, hotza; hildako bat zirudien— ohe bat eskaini zien.

Berehala hasi ziren hitz arruntak esaten. Oraindik agendatxo batean idatziak ditut. Nik ez ditut batzuk besterik aukeratu. Baina aproposak, egokiak deritzet. Sexual askatasuna. Nire lagunak ez zuen «sexual» hitzaren azken garia ulertzen; baina xilborreratu zitzaizkun, eta ez genuen esnerik eskaintzeko betarik izan. Iluna, oso iiluna du gaurko etxea; baina pozik jarraitzen du berean. Eginahalen azkenean ere, ez zait lehen baino lotuagoa dagoelako arduratu. Xilbor-esteaz lotua, alegia. Oso lasai jotzen dugu ertz batetik bestera. Osoa zena tabutu, tabu zena sendatu. Norlehenka azkarrean abiatu zaizkit nire indar dinamikoak. Ez ote dira xilborreratuko...

Ba ziren beste hitz batzuk ere. Euskeraren batasuna. Eta bi ta bietan galdu ginen. Hainbestek halako hitza erabiltzen zutela, hainbestek halako berba erabiltzen. Nire laguna harriturik gelditu zitzaizkion bere xilborraren zulo ilunetan. Eta handikantxe aztertzen zituene bere xilbor-biztanle esperientziak. Zizkidan. Zizkizuen. Baina ez genion inork kasurik egin, eta literatura pikotara bidali genion. Odolez bidali, korreoz ez baitira horrelako gauzarik irixten. Dulunia, duranzan eta dunguluak jaten zituen. Epotzen ari zitzaizkun; baina gure akatsek sortutako munstro hark ez zuen erremediorik. Mundu guztiko azoketan saltzen dira era honetako sumin ziztrinak. Honela hitz egin zeutan herenegun:

—Besoak zabaldu, begiak ireki, ahoa sudurretaraino igo eta burua erne. Bitartean, itsasoko olatuek lehengoetan jarraitzen diate eta bere gorabeheragorakoak ez dituk gure heriotzarekin ere amaituko. Barneratzeak, lasaitzeak, zauri bihotzekoek ematen duten baretaldi baketsuan niagok.

—Baina linguistikak eta soziologiak ere...

—Konturatu konturatzen nauk, ene fraseen zenbait joskera ez doazela oso apostoliko; baina euskera pikotara, nire barne-egoera aztertzen laguntzen ez dautan bitartean. Eta egun bai, egun nire hizkuntza euskera duk. Dena hautsi ziaiguk barnean; baina, «rompecabezas» baten itxurakoak bagara ere, barne-batasun baten bila jo beharko diagu, gure kontradizioen haustea gerta dadin. Mundu berri bat irekitzen ziaidak hitz bakoitzean, eta hemen ziaigok filosofia eta hemen hermeneutika eta hemen logika ere. Goazen goruntz, hitza gizon egin baitziaiguk, eta «et Verbum caro factum est» hitzak ez dituk erlijiosoak bakarrik, literarioak eta oso literarioak baizik, filosofikoak eta oso filosofikoak baizik.

—Ilogikeriak? Ez mutil, ez. Bentan oheratutako Quixotek ez ziren oraindik Sancho zaldunik alboan, eta huraxe izan omen zuan Quixoteren gaurik itogarriena.

Ez dut beste hitz askoren esannahirik burutu. Zaila zait oso, halako iluntasunetan sartzea. Baina ba ditut sakondu batzuk.

Lana. **Zerbait** lortu behar dugu lanetik. Marcuse-k esana. Eta nik aharrasiz: Lana.

Etika. Ba dator askatasunaren Erreinu; baina behararen Erreinu bakarrik loratuko zaiku. Marx-ek esana.

Eta hona hemen zelan nik azken bi izenekin neure hiru orduko lan nekagarria legetu. Baina xilborreratu zaitan lagunaren agendatxo erretzeko erabakia hartu dut.

ANJEL LERTXUNDI

ANAITASUNA Bizkala

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaleta.

Zuzentzaile: Imanol Berrlatua.

Idazkola ta banakola: Jardin Txikerra, 1. Bilbao (12).

Inprimatzaile: Juan José García, Joaquín Jáuregui, Jesús María Tafalla, Gabriel García eta José María Belmonte, AMADO Inpriman, Bilbon.

Irarle: Gil Díez eta Manuel Barrera, RALI etxean, Bilbon.

XIX urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

Protestanteen euskal Bibliak laurehun urte

Aurten beteko dira 400 urte, 1571.ean Joanes Leizarraga apaiz protestanteak, Nafarroako erregearen enkarguz, Biblia euskeratu ebala. Dakigunez, euskeratze horrek aparteko balioak ditu, gure hizkuntzaren funtsa ta mamia ezagutzeko. Hori dala ta, Xabier Kintana aspalditxoan ari* da, liburu klasiko hori oraingo ortografiara moldatzen, aurten, lau ebanjelioak behintzat, publikatzeko asmoz. Honez gero, hiru ebanjelio baino gehiago dauka makinaz pasaturik, guk jakin dogunez.

«Miss» eta euskal folklorea

Bereziki* emakumeek asko maitatzen daben «Miss» izeneko aldizkariak, bere Gabonetako numeroan, artikulua luze bat dakar euskal folkloerari buruz, kolorezko fotografiak ta guzti.

«Txistulari» aldizkaria

Ikusi berria dogu «Txistulari» aldizkariaren 64. numeroa. Beti bezala, erderaz eta euskeraz dator, eta hainbat musikazko orrialde ditu. Oraingoan, Iruinean ateratzen da, Jose Maria Matifiena jaunaren zuzendaritzapean.

Dantza sariketak

Txiki ta gazteentzako Euskal Dantza Sariketa ospatua izan da Bizkaiko Berrizen. Txikientzako saria, hamar bikoteren artean, Andoni Ugartetxea eta Estitxu Artetxe ondaroatarrek irabazi eben. Nagusientzako, oster, urtarrilaren* 31n ospatua, Etxaburu eta Bilbao senar-emazteek, ondaroatarrek honek ere, irabazi eben.

Estitxu Artetxe neskatoak, abertzaletasun handia agertuz, Irazbitako saririk zerbait diru bidaldu deusku, Norbert Tauer txekoslovakiar jaunaren suskizio ordainketa egiteko.

Mikel Laboa eta Marisol senar-emazteen bigarren haurra

Mikel Laboa kantariak eta Marisol senar-emazteek bigarren haurra izan dabe, Joan dan urtarrilaren 29an. Lerro honek idazterakoan behintzat, izaro izena jartzekotan dira, mutiltxoari. Lehendik, alabatxo bat dabe.

Kazetari* bat epaitua

Gipuzkoako Oartzunen ari* dan Jose Remigio apalaz jaunak, Madrilera «Pueblo» egunkariako idazle dan Jesus Maria Amilibia epai-auzitegira eraman izan dau, periodikoan gezurrez idatzi ebala salatuz, bere sermoi batean esandako gauza batzuk biolentziarako dei bat zirela esaten baiteban*. Amilibia jaunaren abogadu defentsaileak, beste gauza batzuen artean, hauxe esan eban: «Amilibia jaunak, berak idatzitakoa eglatzat ematen du, sermoian esandakoaren berri Guardia Zibilean kuartelean izan eban eta.

Alfabetatze kanpaina Usurbilen

Gipuzkoako Usurbilen, euskal alfabetatze kanpaina bat hasi da, joan dan urtarrilaren* 26an. Alfabetatze lan teknikoetatik kanpo, berba hainbat ere emango dira: «Ahozko literatura eta bertsoari- moa», Joan Mari Lekuonak. «Hizkuntzaren muina eta garrantzia», Maria Karmen Garmendiak. «Kanta herrikoa, problema bezala», Xabier Letek. «Literatura zahar profanoa», Aingeru Irigaraiak. «Mende* honetako literatura», Joan Etxaidekok.

Alfabetatze kanpaina honetan, 60 bat ikasle salatuko dira, eta ANAITASUNA aldizkari hau hartuko dabe textutzat.

Teologiazko ikasketak

Donostiako Ingnadoreen* Eskolan, teologiazko irakastaldiak ematen hasi da José María Doral, Nafarroako Unibertsidadeko irakaslea.

100.000 pezeta

«Basauri» sariketa, euskal estudioentzat:

Basauriko udalak*, Bilboko Ateneoaren laguntzarekin, 100.000 pezetako sarri bat eskaini dau, euskal galen inbestigatzeko. Aurten- goz, sariketa horretarako gara «Euskal Historia» izanen da (politikaz- ko historia, ekonomiazkoa, eta abar). Lanok, zein euskeraz zein erderaz izan daltekez. Ez dago luzerazko neurririk gorde beharrik; baina datorren ekaina* baino lehen bidaldu behar dira zuzenbide honetara: Ateneo de Bilbao. Colón de Larreategui, 4. (Para el premio «Basauri»). Bilbao.

Jaun Maria Apellaniz jaunaren hitzaldiak

Juan Maria Apellaniz apaiz gazte bat da, historia ta prehistoria ondo ezagutzen ditua. Bilboko teologiazko fakultatean eskolak emateaz kanpo, arkeologiazko lanak egiten ditu. Orain, Bilboko li- burutegi probintzian mintzaldi bat eman izan dau: «El País Vasco desde el neolítico hasta la romanización, y mis excavaciones du- rante los últimos diez años». Bilbon jaieriko jaun honek ez daki euskerarik, eta, euskeraz kultura haundirik sortu ez danez gero, ez daua ikasterik merezi, esan eban.

Iruineko Kardinala, langileen alde diru batzen

Joan dan urtarrilaren* 25ean, igandez, gelditurik aurkitzen di- ren langileen alde diru batzeak egin izan dira Iruinean, Tabera Kardinal jaunak agindurik, langileen beharrezana ikusi ondoren.

Antonio Vega Seoane, «Aranzadi»

elkartearen lehendakari

«Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi» dalakoaren zuzen- daritza jarraiko hauxe da, joan dan urtarrilaren* 14ean egindako hauteskundeen ondoren: Lehendakari, Antonio Vega Seoane. Lehen- dakari ordeko, Jesus Altuna. Idazkari, Jesus Elosegi. Bokalak, Jose Maria Larrañaga, Fermin Leizaola, Jesus Elosegi, Jabier Laskibar, Jose Maria Merino, Jaime Rodríguez, Ignacio Barandiaran eta Jose Manuel Sustaeta.

Jose Maria González Bastida, jubilatua

Jose Maria González Bastida jaunak, Irungo Academia Munici- pal y Banda de Música» dalakoaren zuzendaritza bere gogoz utzi dau. Hala ere, «Easo» koralaren zuzendari bezala jarraituko ei* dau.

«Kanta Berri» sariketa

Kanpanzar aldeko «Etxabe-enea» tabernan elkarturik, Juan Cor- dero, Juan Azurmendi eta Manuel Urbieto jaunek jarraiko kanta honek hautatu zituen, «Kanta Berri» izeneko sariketarako presen- tatu izan diren 50 abestiren artean: «Nere malteari», Gastelzko Luis Aranburu eta Pedro Anitua jaunena. «Dantzatu dalgun», Az- koitiko Jose Maria Juaristi jaunarena. «Bai eta ez», Ondarroako Victor Ureña eta Agustin Zubikaral jaunena. «Maitatzen», Bilboko Juan Orue eta Eusebio Erklaga jaunena. «Zergaitik», Bilboko Juan Orue eta Eusebio Erklaga jaunena. «Euskal Mendietan», Iruineko Migel Anjel Arbea jaunarena. «Jolas leku baten», Azpeltiko Jose Maria Altuna jaunarena. «Kezkati», Azpeltiko Jose Maria Altuna jaunarena. «Guria», Bilboko Francisco Javier Carboyo eta Eusebio Erklaga jaunena. Nere Udazkena», Gastelzko Luis Aranburu eta Pedro Anitua jaunena.

ANAITASUNA

Bidaldu eidazue «Anaitasuna» kontrarenbolsoz.

Izen-abizenak
 Bizitokia
 Herria Probintzia

«Elsa Scheelen» nobela «Triunfo» astekarian

«Txillardegia» jaunak egin, eta Bilboko «Kriselu» argitarazleak atara eban «Elsa Schelen» nobelari buruz, zenbait* erlitz eman izan ditu Bernardo Arrizabalagak, urtarrilaren* 30eko «Triunfo» astekarian. Beste zenbait gauzaren artean, hauxe dino: «Más que una novedad novelística supone, por encima de la indudable poesía que nos transmite, una decisiva aportación de orden lingüístico».

Xabier Lete eta Antonio Obeso, sarituak

«Soldaduras y Productos Auxiliares» dalakoaren laguntzaz, Hernaniko udalak* eraturiko Literatur Sarietaren erabakiak eman izan dira. Euskerazko poesi sailekoa Xabier Letek irabazi dau, bere «Udazkena» izeneko lanarekin (15.000 pezeta). Erderazko nobela labur sailean, Antonio Obeso jaunak irabazi dau, bere «Me llaman Adolf» lanagatik (30.000 pezeta).

Alfabetatzea Hernanin

«Arri Burni» taldeak eraturik, otsailaren* lean hasi izan da euskal alfabetatze talde bat Gipuzkoako Hernanin.

«Langilegoa» etxea

Iruinean, Aurrezki Kutxa Munizipalak eta Artzobispaduak, biek batera, etxe bat eraiki dabe, «Langilegoa» deritxona, langile ezkongeezant*. Etxeak 52 langilerentzako tokia dauka, eta otsailan hasiko dira langileak bertan bizitzen.

Andoni Sagarna idazlearen hitzaldia

Andoni Sagarna idazle gazteak hitzaldi bat eman izan dau, Gipuzkoako Usurbilen, «alfabetatzea eta euskera batua» gaiari buruz. Hitzaldi honekin hasten da Usurbilen alfabetatze ikastaroa.

Victoriano Flamarique zanaren ehunurteurrena

Victoriano Flamarique, orain dala ehun urte jalo zan Nafarroako Oliten. Apaiz egin ondoren, Oliteko parroko izendatu eben. 1904. ean, «Caja Rural» dalakoa sortu eban, herritxoetako dirutzak hurl nagusira joan ez eitezen. Diru etxe horren magalpean, «Cooperativa de Abonos» dalakoa sortu ahal izan eban. 1910.ean, berak asko lagundurik, «Federación Católico-Social» izeneko elkarte sortu zanean, «Caja Rural» hori desegin egin zan. 1908.ean, «Harinera Navarra» dalakoa sortu eban, eta, urte berean, «Electro-Caja Rural» eta «Círculo Católico» elkarte martxan jarri zituan. Zenbait lurjabe haundiren kontrajokoa izan arren, hainbat gauza on egin eban, kooperatiba gisara. Bere lan, dotrina eta izkribuek eragin handia izan eben garai haretako Elizaren pentsakera eta burubideetan, bereziki* gizarte arazoetan.

«Karmel» aldizkaria

Jaso berria dogu «Karmel» izeneko Karmeldarren aldizkaria. Hiru hilabeterik behin agertzen da, eta bere alderako gizonik presuena, dudarik gabe, Aita Santi Onaindia da. Urtarril* honetan agertu dan zenbakiaren hitzaurrean hauxe esaten da:

«Lenago illun, tabu artean bizi ziralda? Ta gaurkoak, zer? Lena bota, orma zarrak ondatu. Baiña, au tamala! lengo onez gabetuak eta orduko txarrez beteak geratu: ez al dogu auxe egin? Aulak zapaldu, gauzarik sakratuenak, eder ez yakuzalako, esetsi»; iñoren odolez bizi, usan* gisako. Or zer dagigun. Bildurra erein, neure eretxiko ez danari jipola* berotu.»

«Zaigor» hirukotea, irratitik kantari

Legazpiko «Zaigor» hirukoteko abeslariak zenbait* grabaketa egin izan ditue, Donostiako Irratian kantatzeko.

«Orixe» zanaren «Jainkoaren Billa», berriro argitaratua

Bilboko «Ediciones Mensajero» etxearen «Etor» sailak argitara eman berri dau, «Orixe» zanaren «Jainkoaren Billa» liburua. Aralde, Orixeren ilobak egiten dau hitzaurrea. Liburu berri hau, joan dan mendeko* mistikaren kutsuduna, euskera landuan egina, nahiko lodia da orriz eta salneurritz: 150 pezeta.

«Etor» sail berri honek, gainera, laster batean argitara emango dau beste liburu bat, Gotzon Garatek egina, eta «Marxen Marxismo» izenburutzat daroana. Dudarik ez dogu jartzen, Gotzon Garatek lan on bat prestatu daua.

«Ez dok Amairu» Tafallan

Joan diren Gabonetan, «Ez dok Amairu» kantari taldeak Tafallan eman izan eban kanta salo bat, jendetza haundi baten aurrean. Aspaldi honetan, ez dogu kantarien jaialdi askorik entzuten. Eragozpenak, asperraldia, boikotak, kantarien progresurik eza...?

Iñaki Linazasorearen hitzaldia

Joan dan urtarrilaren* 19an, hitzaldi bat eman izan dau, erderaz eta euskeraz, Iñaki Linazasoro jaunak, Markinan. «Artibai» taldeak eraturiko hitzaldi hau, «Euskal Herria ezagutu dezagun» gaiari buruzkoa izan zan, eta hizlaria diapositibez baliaturik mintzatu zan. Berbaldiaren ondoren, hizlariak bere liburuak saldu zituan.

«La Historia del Atlético de Madrid» liburua

«La Gran Enciclopedia Vasca» dalakoak laster batean argitaratuko dau «La Historia del Atlético de Madrid» izeneko liburua. Liburuaren hasieran, Vicente Calderón futbol talde horren lehendakariaren agur bat dator, eta hitzaurrea Juan José Mencía jaunak egina da.

Geroago, «Historia del Club Barcelona» argitaratuko dau.

Jose Luis Izunza jaunaren hitzaldia

Joan dan urtarrilaren* 26an, Jose Luis Izunza jaunak hitzaldi bat eman izan eban Bilboko Gran Vía kaleko ikastolan, «Guraso ta irakasleen arteko heziera» bateratua» gaiari buruz, ikastoletako haurren* gurasoak entzule zirelarik. Jarraian, elkarrizketa egin zan.

«Ur» taldea Bilbon

Bilboko «Mikeldi» arte erakusketarako gelan, «Ur» taldeko pintore honek agertu ditue euren lanak: Jabier Arozena, Carlos Bizkarrondo, José García ta Alejandro Tapiak.

Ikastoletarako egutegia

Ikastolen arduradunek gertaturik, agertu berri da gure artean egutegi* berezi bat, «Herriak gu, guk herria» izenburuarekin. Egutegi hau ikastoletarako da. Igazko Irailean* hasten da, eta aurtengo abuztuan bukatu.

Erliziozko aldizkari berria

Teodoro Ignacio Jiménez Urrestil eta Gregorio Rodríguez, teologiazko erlitz zaharrak mantentzen dituen jaun apaizek zuzendurik, erlijiozko aldizkari bat agertuko da Madrilen, «Sodalicio Iglesia Mundo» (Revista de Información y documentación) izenburuarekin. 25 mila ale zabalduko ditue hasieratik.

Uzkudun, ukabilkari izana, gaixorik

Uzkudun, ukabilkari ohia*, garnuko* gaixoak makalik egon ostean, Madrileko «San Camilo» klinikan sendatua izan da.

«Covafor» elkartea

«Covafor» (Cooperativa Vasca Forestal) elkargoa* lanean ari da Bilbon, mendiak eta mendietan diren arbolak zaldu eta hobatzeko. Elkarteko arduradunik behinena, Bernardo Mesanza Ingindorea* da. Xehetasun* gehlagorako: «Covafor», Navarra, 5. Bilbao.

«Club» Martiartu, 140 miloi pezeta

Joan dan urtarrilaren* 30ean Inauguratua izan da Bilbon «Club Martiartu» dalakoa. Etxe eder bat, ume-zalntzarako egonlekua, jantzi tokiak, apartamenduak, jardinak, edozenbat deportetarako lekuak ditu. Ehun mila metro kuadratu dira guztitara. Mila ta leurehun bazkide dira, eta, sarrerako, 90 mila pezeta eman behar izan ditu bakoitzak. Elizarik ez dabe jaso, ez eta kapellaurik ere izendatu.



DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra
Astegunez: 7. tatik 11 ra.

KAFETEGI

AMALUR

RESTAURANTA

HIPPI IZAN GAITEZKE?

ANAITASUNA eta Joanes Zuhatsuko direla medio, Fred Davis-en iragarpena* ezagutu dugu: «egun batean hippi izan gaitezke».

Gehiegi gara, bai, hippiei burlazko irribarrez begiratzen diegunok. Trebetasun guti agertzen dugu, haien arrazoi eta irakaspenak aditzeko.

Hipplek, berriz, arrazoi sakonak eduki* behar, hain liluragarri* zaikun ugaritasun-gizarte honetan gozamenen gozamenaz ez lokartzeko. Eta eduki ere ba dituzte noski*.

Hipplen ustez, Mendebaldeko* kultura honek, gizonaren ahalmenen osotzea gauzen jabe izatearekin berdintzen du; bizitza hau atsegingarria da, mundua teknikaren bidez menperatuz gero. Hau da: Mendebaldeko kulturak, gizon izatea «edukitzearekin» parean jartzen du.

Hippien ustez, teknikak ez gaitu osotzen, zatitzen baizik, eta, aurrerapen materialari korapilatutik, masifikaziora garamatza. Teknologiararen razionaltasunak —edo razionalkerlak— eragotzi* egiten du gizonok kosmosarekin behar dugun komulgatzea. Horregatik, gizonok elkarrekin ditugun harremanak ere nahastuak dira.

Teknologia hau eta, gehien bat, haren aita den kapitalismoa zorrotz kritikatzeko dituzte hippiek.

Egia esan, guztioak ausartu* beharreko egia birbilak!

Zapaltzaile ta higuigarri den materialismo honen aurrez-aurreko hippien jokabideari, ostera, ahula* ta eskasa ote dan deritzagu.

Hipplak Eklaldeko filosofoen adiskide agertzen zaizkigu: kietismo zale diren jakitunen lagun. Bizi nahi dute elkartean, tolestura gabe, berezotasun garbian, izadiarekin* anaituta.

Aski* ote da moralismo hau, Mendebaldeko zibilizazioaren erraletan* iraultza* mamitzeko?

Zaila da benetan, lherkeria eta alferkeria salakuntzatik onez ateratzea. Haiek diotenez, zapaltzaile den politikari bideak libre uzten dizkiote. Baina hori ote da aurka egitea?

Guztien aurretik Irakatsi behar liratekeen bost gauzok, «olnarizkoak» ote dira gaurko mundu honetan? Hirutarik bi gizonak ez dute lurrik, lantzeko; ez jantzirik, josteko; ez janik, kuzinatzeko... eta abar. 2000. urtean, 6.000 milioi izanen* gara munduko bizilagunak; holetarik 5.000 milioi, lurgabeak, jantzigabeak... Guztien aurretikoa, ez ote da ekonomia ta sozial lana?

Gizonaren ahalmenen teknikak ez diezela mugarik jar, horretan hippiekin gaude. Ostera*, teknika gabeko izadi soilak* glzona askatuko duela, horretan hippiekin ez gara bat. Gisa horretako izadi bera zapaltzaile izango baitzala* hainbeste milioi gizoni.

Azken aldega: Sozialki planifikatu herrietan sortu al da hippi mugimendurik? Sortu ez bada, zergatik? Sortu bada, zelako* gupila dute?

BARRESKI

dlegu, deutsegu
diezela, deioela
diote, dinoe
dizkiote, deutsoez
gaitezke, gaitekez
garamatza, garoaz (eroaten galdu)
gaude, gagoz
zaiku, jaku
zaizkigu, jakuz

Amenazuak

ANAITASUNA aldizkari honen propaganda txartela daroen auto jabeel, amenazuak egin izan jakez zenbait* tokitan, kotxeko lehotik kendu ta apurtzeko aginduz. Eta hori, anaitasuna hitzak h-rik ez daukala.

«Las Intuiciones de Sotero Bidarte» liburu berria

«Itxaropena» etxeak argitara emanik, «Las Intuiciones de Sotero Bidarte» izeneko erdal nobela bat atara dau Pelay Orozco erdal eskritoreak.

ERNESTE OUNDIE, MARTIRI BERRIA

Cameroun aldean ba dut adiskide jator bat. Bera gogoan dudala idazten ditut lerro hauk*. Ba dakit, negar eginen* zuela, Herri hartako gertakari negargarriak direla ta.

Gure Herriko zoritxarra aski* ote dugu, besteetaz ez axolatze-ko? Itxuraz bai.

Cameroun, Afrikako eskualde* ttipi bat besterik ez da. Lehenngoetako bat, bere buruaren jabe izaten. Baina zer da, bere buruaren jabe izatea?

Erneste Ouandie eta bi lagun hil dituzte. Ndogmo gotzaina eta beste bi lagun bizitza osorako espetxeratuak izan dira.

Aurtengo urtarrilaren* hamabostez gero, sei martiri berri agurtuko ditugu; hiru hildakoak, eta hilik bezalatsu egon beharko duten beste hiru. Sei martiri berri. Herriaren askatasunaren alde burruka egitearren galdu dute beren bizitza. Guk, horretako gai ez garenok, guttienez burua makurturik agur ditzagun.

Horrelako gertakari batek galdera asko erakarri ohi ditu burura. Baina, gaurko, hauxe bakarra: Zergatik egiten zuten hauek burruka? Oso erraza da nik entzun dudana erantzuna, egia izateko. Nire eskuartearen erori* diren paperekin beti berdintsu erantzun dute: beltzen arteko arazoa; arrazakeria nonbait. Baina esan dezagun behingoz behin eta oso goraki: hori gezurra da.

Camerounez dakidan gutti hori, neure adiskideak esana dakit. Eta oraintxetik esango dut: hangoek arrazoi haundi eta beharrezkoak dituzte, burruka horretarako. Nire adiskide hau apaiza da. Eta, apaiz bezala bere herria maite zuelako, ihes egin beharrean gertatu zen.

Luzeegia lizateke, burruka honetaz historia osoa egitea. Hitz guttitan laburtuko dut, beraz*.

Cameroun Frantziaren menpeko zen, askatasunera heldu zenean. Itxurazko askatasunak Agirizko buruak, beltzak ziren; azpian, azpilana eta azpi-agintea zutenak, frantsesak ziren. Herriko talde batek beste era bateko askatasuna nahi zuen, eta jende asko azpi-gudua egiten hasi zen. Dirudunek Ahidjo diktadoreari laguntzen diote. Eta diktadore honek hil ditu Ouandie eta haren lagunak.

Odoia ona da, ordea*, hazi berria ugaritzeko. Oraingoan erru haundian erori* da diktadore makur hori. Oraingoan galdua da.

Bai, Thomas Fondjo, nire adiskide jator hori. Alegria hadi. Laster dukezue* hain maite duzuen askatasuna. Eta gu, beti zuekin.

MARKOX AMUNDARAIN

dezagun, daigun
diote, deutsoe
ditzagun, daiguzan

Aldizkari bat, isilerazia

Ekonomiazko gaiak ikutzen izan dituan «España Económica» izeneko hamabosterokoa, multa pilo bat, bata bestearen atzetik izanda gero, galerazia izan da, «Ministerio de Información y Turismo» dalakoaren aginduz. Politika eta ekonomia elkarrekin hain loturik izateak ekarri deutso zigor hau, bere artikuluko mordo bat, agintarien eritziz, ekonomia hutsetik irtetzen zalako. Aldizkariaren zuzendaritzaren ustez, ez da horrelakorik inoiz ere gertatu izan. Baina hori epaitegian erabaki beharko da.

Ba dira bi edo hiru hilabete, zuen errebista erosi eta Irakurzen detala. Hortaz gainera, atzo, nire lagun batek, hor bidaltzen dizuetan txartel hori eman zidan. Honela, bada, astero astero ANAITASUNA erosi beharrean, zuekin suskizioa egitea erabaki dut.

Atsegin zalt zuen Informazio txorta, eta, nola ez, bertan sartzen diraden artikulu gehienak. Ikusten dezu bezala, nire euskera ez da batua, «logiko» edo betikoa balzik.

Hala ere, nahi dut ANAITASUNA irakurri eta bertan noizean behin zeredozer idatz.

X. O. (Donostia)

Euskera batuaren beharrez ez dogu uste, eztabaldan ere jarri leiteke, agiriari dagoen gauza bat dalako. Eta, era berean, ANAITASUNA aldizkariak arlo honetan egiten duan lana oso txalogarria dala ikusten dogu. Euskera bakar hau egiteko orduan, zertan esanik ere ez dago, zuek jarritako oinarriok ez direla aldatuezinak izango. Baina, edozelan ere, beste sistema hobeago bat aurkitzen ez dan bitartean, zeharo onartzen dogu zuen lana, eta ahalgintzen gara, Ingurukoel ere erakusten.

Baina ez gagoz larregi konforme, aldizkari horetan erabiltzen diren galakaz, eta eurok erabiltzeko erarekin. Eta, gu arratlarak garenez, batez ere arratlar gizonak arduratzen gaitu. Eta aldizkari horretan agertzen diren artikulu askok zer dinotsoe, ba, rural edo baserriar izakera batean bizl dan gizonari? Eta guztioi Interesatzen jakuzen galak erabiltzen dituzuean ere, nork ulertzeko euskeran egiten dituzue, ba, sarritan?

Zamakolatarra (Arratia)

Holandan bizl naiz eta ANAITASUNA hartzen dut. Autorik ere ba dut. «Anaitasuna» jartzen duen txartela bidaltzen badautazue, pozarren ipiniko dut neure autoan.

C. K. Vught (Holanda)

Laster ezkontzekotan naizen neska bat nauzu. Nire senargalak ez du sinesten, ez du sinemenik, ez kristauenik ez bestelakorik. Beraz, ba ditut dudak, ea zer egin geure semeekin... Ez dut bataltzera eramateko asmorik, zeren* beren altak ez baitle erlijiozko irakatsirik behin ere emango. Bestalde, haurrek berek ere, behin edo behin, galde eginen daukute, ea zergatik eraman ditugun bataltzera, zentzu gabe zirelarik».

J. G. (Bilbo)

Harpidedun naiz, eta ene gogoko dan ANAITASUNA horri eskari bat egin gura neuskio: hauxe argitaratzea.

Zoritxarrez, gorputz eta arlmazko galxorik asko ditugu geure artean. Oraingo del hau, ahaztuta dagozen gure galxoan alde doa.

Sarritan, honelako elkarrizketak izaten dira, bai zaharren eta bai osasun gabekoen etxeetan:

—Kalxo lagun! Zelan zagoz?
—Ni, beti negar egin gura. Ez dator inor ni ikustera, ez etxekorik ez herritarrik.

Erantzun hori ez da golxoan burutazio hutsa, ez. Bakartadearen egla garrantza da hori. Honelako galxo ta zahar asko ditugu inguruan. Irribarre baten egarri.

Inor mindu barik, ezin ote gelinekez erantzunkidetu*, eta geure bihotza agertu geure gizartearen zatil honi?

Goazen alaitzera, isilean, paternalismo barik. Gaur eurak dira, bihar nork jakin...

Herritarra (Gernika)

Hamar urte ditut, eta Ondarroako «Kresala» taldekoa naiz. Irakurri dot 203. zenbakian Pragako 72 urteko altitarentzako eskaria. Euskalduna izan, eta Itxi ote leitekez begiak eta belarriak, eskari horri erantzun barik? Nik uste dot ezetz. Poz haundiagaz neuk ordainduko dot N. Tauer altitaren suskizioa. Azkenengo Berrizko Dantzari Txapelketan Irabazitako dirua itsulapikoan daukat, eta handik egingo dot ordainketa. Argazki bat ere bidaltzen deusut, Pragara bidaltzeko, zeuk nahi badozu.

Estitxu (Ondarroa)

Zuen azken zenbakian eskari hau egiten dezue, alegia*, nork hartuko ote duen N. Tauer jaunaren suskizioa. Atsegin haundiz hartuko nuke.

Bide batez, N. Tauer jaunaren zuzenbidea emango bazenidate, nire eskerrona izango zenukete, posible baita* egunen batean hara joatea; eta, okasio hau agertuko balitz, sentituko nuke, gizon presu hau ez ikusi ahal izatea.

J. E. (Donostia)

ZUZENDARITZAREN OHARRA: Hainbat irakurle arduratu dira, N. Tauer jaunaren ordainketa egiteko. Estranjeria aldean ditugun zenbait harpideduni kobraketa egitea zail egiten jakunez gero, azken honeen alderako jartzen ditugu jasotako diruok.

Aspaldion apostrofo (') bat ipintzen dozuela ikusten dot, esaldi batzuetan. Esate baterako: *Harek egin eban' lana ez zan ona*. Oso ondo deritxat honi, esaldiaren argitasunerako.

202. zenbakian agertzen dan azalak harrিতuta utzi nau: *Gabon, egin jai, Mammon*. Horregaz zer esan gura dozuen ulertu guran nabilt. Eta, gero, beste hau: *Ez eizu Gabonik egin*. Uste dot, pentsamolde negatibo bi honeen ondoan, Irakaspen positibo batzuk eman behar zeunkeezala, batez ere ANAITASUNAREN zeregina «información y divulgación religiosa» bada.

A. P. B. (Bermeo)

Golherri Nafarroa ez baldin daba, behintzat Gipuzkoan a organikoa ere (gauza bat, etc.) entzun daitenke oraindik (Elexpuru). Eta, esaterako, dateke aditz forma ere, Gipuzkoan, ez dago oraindik zeharo galduta.

Jose Azurmendi (Alemania)

Gu giputzak gera, eta, izparringi batean Cooper-ek Urtañ muturrean jotzen ikustean, samindu egiten gera. Horregatik, ez bidaltu guri ANAITASUNA hori. Ez degu nahi.

Giputz bat (Gasteiz)

Azken aldiko ANAITASUNAK, galaren aldetik, nahiko eskasak iruditu zalkigü. «Euskaldungoa» eta «Ezagutu zeure Herria» kenduta, galak nahiko inkoerenteak eta linea baten faltan bilatu ditugu.

J. M. E. (Andoain)

ANAITASUNAREN zeregina legearen aurrean «Información y divulgación religiosa» bada, eta hau ez bada aldatzen, uste dut, ANAITASUNAK ez duela beteko herriarekin duen konpromisoa. Herria ez da kontentatzen orain, Ama Birjinaren irudi batekin eta egiten diren otoitz berriekin. Problematika herrikoien azalpenak eta azterketa sakonak behar ditu.

Horregatik, ANAITASUNAK lege horren menpetik irten egin behar duela uste dut. Orain oztopo izan baldin bada, aurrerantz ere oztopo izan liteke.

Niretzat eta nirekin hitz egin dutenentzat, ANAITASUNAREN postura legala aldatzea izango lizateke onena. Horrela, askatasun gehiago eukiko luke, herriko galak erabiltzeko; eta, batek dioenez, euskal abertzaleok kazeta sendo eta profesional bat izango genuke.

J. L. E. (Donostia)

SORGINEN HIZKETA

Batek baino gehiagok, aho zabalik agian*, «Ez dok Amalru» koen azken xartela ikustean, hauxe galdetu bide* dio bere buruarl: Eta zer demontre da **baga, biga, higa hori?**

Askorentzat jakingarri delakoan, berau ere kontaktzera noakl-zue. Herri guztientzat, erlijiozko, sorginkeriazko eta misteriozko zereemonietarako hizketa, hizkuntza ezezagun eta ilun bat izan ohi* da. Hasiera batean, erlijio hori sortu edo fundatu zenean, otoitzak orduko hizkuntzan egin ziren; baina, denboraz, jendeen hizketa ebo-

luzionatuaz eta aldatuaz joan zen, eta, azkenez, jatorrizko hizkuntza hartan egindako otoltz eta errezu haik* ez ulertzeko puntura heldu ziren. Horl gertatu zen Erroman, bertako Jainko jatorrel egnikako otoltzetan latin zahar eta arkaiko bat erabiltzen baltzen*, Jesu-kristoren denboretako erromatarrek aditzen ez zutena. Juduen artean ere, hebraikoa aristokraten hizketa zen, baina ez herri xeheak erabiltzen zuena. Kristoren hizketa ez zen, beraz*, hebraikoa, ha-ren dialekto bat balzik.

BAGA, BIGA, HIGA.....

Indian ere, sanskritoa, orain hiru mila urte mintzatu zen' hizkuntza bat, liturgia hizkuntzatat kontserbatzen dute bertako erlijioetan; eta oraintsu arte, Luterok orain lauhun urte dela ganbiatu* arren, latina kristau katolikoen erlijio hizkuntza ofiziala izan da.

Hizkuntza sakratu eta hil hauen jatorria nahiko logikoa da hiztoriaz; baina halen irautearen zergatia* beste hau izan da, hots*, herriko jende xehearentzat gorde duten misterio eta adiezintasuna. Apaizen eta sazerdoteen hitz misteriosoan pean, askorentzat, erlijio hartako izpiritua zegokeen*; eta, herriak ulertzen ez zuenarenako errespetua kontuan hartuta, hizkuntza sakratuok hain lu-zaro iraun dute. Afrikako beltzen artean ere, kasu, aztiak* eta he-txizeroek beste herrien eta tribuen hizketak darabiltzate gaur ere, jendearentzat hitz misteriosoagoak izan daitezzen. Beraz* pelikule-tan afrikarren zereemonietako hitz adiezinak entzutean, pentsa deza-gun, tribu haletako beltzei bezain adiezinak zaizkigula.



Eta alpa dezagun orain geure sorginen kontua. Euskal Herrian sorginek ere horrelako misteriozko hizkuntza bat egin zuten akela-rretarako. Beren esaldietan euskal hitz aldatu eta ezagutu-ezinak esaten zituzten, entzule guzti halen harrigarriak. Zerbakiak (bat, bi, hiru, lau...) honela aldatu zituzten sorginek beren zereemonietarako: **baga, biga, higa, laga, boga, sega, zaga**. Sistema oso erraza da. Irakurleak ikusi duenez, nahikoa da zerbaki bakoltzaren lehen silabari **-ga** jartzea. Zazpi zerbakiotarik, baina, **biga** ez da asma-tua, ipar aldeko euskeran bizi da ta. Beharbada, honetatik irten zi-ren beste guztiak, hain zuzen.

Ba dago euskeraz beste honelako hitz kurioso asko, esate ba-terako, balearen* bila zihoazen euskaldunen hizketakoak, orain ere

ingeles baleazaleen mintzarlan kontserbatuak. Baina honi buruz bes-te egunen baten idatziko dut.

XABIER

dio, deitso
zaizkigu, jakuz
zihoazen, jolazen
darabiltzate, darabiloz
dezagun, daigun



P E N T S U A K

Sarb-en ardurapean eratuak

VALLE DE ATXONDO (Bizkaia) - Tel. 11

Zure etxeko behi, txahal, egazti,
ardi, koneju, nahiz txerri,
onuragarri izan ditzazun,
emaiezue Ongarri.

Gerediagako batzar nagusia

Urtarrilaren 17an, goizeko 10etan, Astolako Auzlategian, Gerediagarren Batzar Nagusia egin zan, euren lehendakaria aurrez zala. Batzarrari hasiera eman orduko, etxeari eta bertako museoari begirada bat eman geuntsan. Biak ere, nahiko makal eta danon laguntzaren beharrezanean.

Batzar ordurako bildu zirenak, ba ziren 80-100 inguru. Lehendakariaren agurraz eta aurten egindako laborpen bategaz zabaldu zan biltzarra. Ondoren, idazkari ordezeko batek aurreko batzarreko agiria irakurri eban; onartua izan zan.

Diruzainak argi eta garbi erakutsi zituan diru gorabeherak: gutxitara, 14.000 pezetako zuloa. Esaten dan legez, zorra dagoenean, gauzak ondo dabilkez (batzuek gura leukeen beste izan ez arren). Diru ugartasuna urtearen azkenean, elkargo baten bizitza makalaren ispilua izan leiteke.

Herrietako ordezkariak euren delegazioetan hartutako erabaklak azaldu zituen. Aurtengo urterako agertu diren ekintzen argibide bat hauxe dozue: Maiztean, umeen jai bat Goiurlin. Ekainean, Ikastola Umeen II Bileran, Elorrion. Uztailean, Dantzari Eguna Zaldibarran. Irailan, Artzain Txakurren Txapelgoa Otxandion. Urri-Hazilean, Euskal Liburu ta Diskoen Azokan Durangon. Eta beste holako hainbat ekintza urtearen barruan joango gara argitaratzen.

Tabira-Durangoko hiru ordezkariak joan dan hazilean baldidutako dimisioak ere azaldu ziren. Gerediagak daroan bizitza laburrean, bost izan dira, dimittitu daben ordezkariak, danak Durangarrak. Az-

kenengo hiru honeek azaldu ebenez, eurak ez egozen ados, batzordekoek hartutako bideaz. Euren ustez, Gerediaga sortu zanezko asmoetatik urruntzen ari dira.

Ondoren, Anboto alderako ordezkari berriak ateratzeko hauteskundera egin zan, eta jarraiko honeek izan ziren aukeratuak: Elorriorako, Estibaliz Isasi eta Juan Maria Zubia. Abadiñorako, Angel Arkarazo (lehengoa). Otxandiorako, Eugenio Urrejola (lehengoa). Mañarirako, Carmelo Arteaga. Izurtzarako, Maria Nieves Gorrotxategi. Tabira-Durangorako, Pedro Alberdi, J. J. Mendiola, Juan L. Ercilla eta Roberto Andueza.

Azkenez, eta amaitezko, bazkide batzuen eskabideak irakurri ziren. Batek eskatzen eban, elkargoko idazkaria euskeraz idazten dakiana izan dadila; onartua izan zan. Beste bate eskatu eban, Gerediagak ikusi daizala eskualdeko posibilidadeak, haurren problematikari behar dan erantzuna emateko. Eta beste barik amaitu zan batzarra.

Aurtengo urterako batzordea holan eratu gelditu da, hauteskunde baten ondoren: Lehendakari, Balentin Lasuen, Zaldibartarra. Lehendakari ordezeko, Luis Gorroño, Berriztarra. Idazkari, J. L. Lizundia, Abadiñokoa. Diruzain, Jesus Ormaetxea, Iorretakoa.

Dimisioek eta euren ondorenek ekarritako gudu hotzaren arrastoak nabaritu ziren batzarrean. Baina katea ez zan eten, eta Gerediaga elkargoa, eritzi ezberdinen gainetik, aurrera doa.

GEREDIAGATARRA

Elizako berriak

Elizkizun ekumenikoa Iruinean

Iruineko Jesusen Bihotzaren elizan, katoliko ez diren kristauekin batean, elizkizun bat egin izan da, joan dan urtarrean. Eliza jendez gainezka egoelarik, batzarburu izan ziren Tabera Kardinal jauna eta «Iglesia Española Reformada»ko Ramon Taibo Gotzain jauna.

Hasieran, «Un solo Señor» eta «Veni, Creator Spiritus» kantatu ziren. Ondoren, «Apostoluen Eginak» liburu santutik zati bat irakurri eban Edwin Lee, «Iglesia Bautista»ko Gotzainak. Isilaldi baten ostean, «Alleluia» kantatu zan. Gero, Larrauri, Gotzain laguntzaileak, «Kristoren Bataioa» Mateoren Ebanjeliotik irakurri eban. Irakurgai hau amaitu ondoren, Tabera Kardinalak eta Ramon Taibo Gotzainak hitzalditxo bana egin eben.

Egoki zan bezala, elizkizun honetan, Kristogan sinesten dogun guztiok bat izateko eskatu zan, eta batasun horretarantz abiatu gaitezen otoitz egin zan.

Kargu berriak Bizkaian

Bilboko Obispaduan, kargu berri honeek eman izan dira: Jose Martinez, Bilboko San Gabriel elizako parroko. Juan Miguel Zúñiga, Deustuko Arangoitin dagoen parrokiako apaiz taldearen buruzagi. Juan Angel Axpe, Arangoitiko parrokiako apaiz taldeko. Jose Luis Urrutia, Arangoitiko parrokiako apaiz taldeko.

Angel Unanue, Sopuertako kargudun. Lucio Beraza, Montellanoko kargudun. Claudio Garcia, «Adoratrices» izeneko monjen kapellau eta San Martin parrokiako laguntzaile, Getxoko Negurin. Eduardo Arriaga, Mañuko kargudun, Bermeon. Alberto Ruiz, «La Encarnación» monja komentuko kapellau, Bilboko Atxurin. Pedro Hernández, Derioko San Isidro elizako diakono.

Andrés Cañibano, Bilboko Agustinoen elizako parroko; beronen laguntzaile: José A. Quintana, José Ibán eta José A. Merino. Francisco Javier Gaztelu, Alonsotegiko San Bartolome elizako parroko. Ignacio Eguskiza, Larrabetzuko Done Martiriaren elizako diakono. Dionisio Urteaga, Santurtzeko San Pedro elizako apaiz laguntzaile.

Victor Morla eta Jesus López, Ermuko Santiago elizako apaiz laguntzaile. Gorka Aulestia, Errenteriako kristauen kargudun, Gernikan. Felix Bilbao eta Angel Aranberri frantziskanoak, Lumo eta Lurgorriko kristauen kargudun, Gernikan. Jose A. Basterra, Galdakanoko apaiz laguntzaile, Realeza de María izeneko elizan. Jose A. Basterra, «Cursillos de Cristiandad» ekintzako apaiz laguntzaile.

Mungialdea

Idazketa Txapelgoa

«Fundación Ventades» eskoletako arduradunek, gure eskualdeko haur eta gaztetxoentzat Idazketa Txapelgo bat antolatu izan dabe, euskeraz eta erderaz.

Zorionak eta eskerrik asko antolatzaileei. Ea honelako ekintze-kin gure eskualdea kultura maila hobeto batera heltzen dan. Eta ez dadila ekintza hau azkenengoa izan.

Dantza taldeak non?

Mungian, orain arte, dantza talde batzuk izan ditugu. Baina, orain, ez dakit zer jazo izan dan. Azken unada honetan, entsaiotarako ere ez direla batzen uste dot. Gaitz erdi, balore berriek lekua uztearren, hori egiten badabe. Baina, txarrena, honeek sortzen ere ez dira dedikatzen.

Albo herri gehienetan ere, beste horrenbeste jazotzen dala uste dot. Ea bultzada berri bat ematen deutsegun geure dantza taldeei. Posibilitaderik ez da falta.

Klub baten beharrezana

Ba dira zenbait hilaibete, Mungiko gazte talde bat dirua baten eta proiektoka dabilela, Klub bat egin ahal izateko. Euren helburua gazteria guztia batzea da, jolas eta kulturaren bidez. Nik dakidala, Bizkaiko herri batzuetan, Durangon esate baterako, ba dira horrelako Klub batzuk. Nire ustez, Mungiarrok eskerronez hartuko geunkez hareen kontseilu batzuk.

Futbol zelai berria dala ta

Hainbeste denbora dalarik, Mungiko herrian «complejo deportivo» dalako bat egiten hasi ziren. Ez dakit zenbat milioi diren bitarte. Amaitzen danean, lilaragarrizkoa izan beharko dau.

Palazko pelotariak

Mungiarrok gauza gutxitan nabarmentzen ei gara. Baina, parlarian artean behintzat, nahiko talde ona dogu Bilboko «Deportivo»an. Euskera diruz ondo ordainduta balego, euskalzaile mordo bat ere izango geunke.

Soldadutzara joan orduko

Urtarrilaren hasieran Espainiako armadan zerbitzera joan izan direnek edo urtean zehar joango direnek, hiru eguneko hezildaldi bat izan dabe. Hezitzaileren artean, midiku bat, militar bat eta zenbait apaiz izan dira.

Sanantontxuak

Urtarrilaren 18an, Mungiko jalak ospatu ditugu. Jai baketsu eta alaiak izan dira.

Baina argi ikusi izan dogu, jendearen mentalidadea, gero ta gehiago kontsumozko bidean sartzen hasi dala. Jaialdien alde-rik ere, danak izan dira goitik emandakoak: pelota partidu, ziklo-kros, txerriki txapelketa, eta abar. Nire ustez, herriko jaiak herri- tar guztien partizipazioa izan behar dabe, herrikoak izateaz gainera, saltsa apur bat izan daien.

I. J.

Azcoitia**Alfabetatze arazoa**

Bizpahiru azken urte hauetan, alfabetatze saloak izan ditugu geure eskualdeko herrietan. Eta esperientzia bat izan da. Etapa bat erre behar zen, eta erre izan da. Orain nabarmen gelditzen da, beste etapa bat behar dugula.

Egun hauetan, eskualdeko gazte batzuek eraginda, alfabetatze lanerako asmoaren berpizte bat ikusten ari gara. Zihur gaude, gazte hauen kontzientzia garbi dagoela etapa berri bat egitearen beharra. Helburu berriak, gure ustez, hauk dira:

— zabaltasuna: ehun edo berrehun ikasle. Uste dugu, irakaslerik nahiko dugula.

— irakasleen preparazioa, Irakaskintzaren kalitate maila igo erazteko.

Nahitanahiezkoak iruditzen zaizkigu bi helburuok. Bestela, ez duela ekiterik merezi.

Arrisku bat: Hemen ere, Euskal Herri osoan bezala, taldeetan zatiturik gaude. Eta askotan nahiz izaten dugu, gauza guztiak geure «eskutxoetan» edukitzea.

Bide bat: Alfabetatzearen teknifikatzea. Euskeraz hitz egiten, Irakurtzen eta idazten irakastea, alfabetatzea da; eta problema sozialak beste gauza batzuk dira. Gauza bat ondo egin dezagun, eta ez bost hala hola.

Helburu bat: Pentsa dezagun, hizkuntzaren oxigenoa dela eskola formazioa. Eta honen bitartez, luzaro iraun ahal izango duela herri hizkuntzak eta, berarekin batera, herriak.

Toki alienatzaile bat herrian

Lehen ere, herri kulturaren zapaltzailetzat salatu genituen Merzedarioak. Orduan eskaintzen genien, edo euskeraz lana egin, edo pikoetara joan.

Dakigunez, proposatu egin zaie ikastetxe honetako zuzendariari, beren ikasleen guraso elkarte bat sor eraztea. Baina jaun hauek erefusatatu egin dute proposamendua. Lerro hauk aipaturiko gurasoren baten eskuetara iritxiko balira, kontzientziaren esnatzaile izan lekizkiola nahiz genuke.

Ikastolako batzarra

Urtarrilaren 24ean izan da ikastolako batzarra. Asmoa? Zuzendaritza batzordearen eraberritzea. Era honetara: sei guraso, sei gazte, eta sei bazkide diru-aportatzaile. Poztutzen gara pauso honegatik, zeren eta ikastola barruko problemek eskatzen baitzuten. Komen haundi bat opa diegu berriek.

Mendizaleak

Mendizaleen elkarteak egin berri duen batzar nagusian, A. Vallejo gaztea izan da lehendakari aukeratua. Dinamika ekintzaile eta kimen haundia opa dizkiogu.

Gogora dezagun, oraingoz mendiko kirola besterik ez dagoela gure herrian. Zeren eta, bai futbola, bai pelota jokia eta bai beste kirola asko, espektakulo alienatzaile bihurtu baitira, edo minorria batzuenak dira. Askorentzat, noski, musean egitea edo kineleak betetzea kirola izanen da.

LAUROK

Eibar**Amaña**

Amañako parrokia, sortu zanetik bertatik, aurrelaria izan da diru kontu arazoetan. Parrokia honetan, ez dira elizkizunak eta elizako beste premiak ordaintzen. Orain arte, bakoltzak ahal ebana eta gura ebana ematen eban hilabetero. Hala ere, oraindik laurhun mila pezetako zorra dagoela ta, horrez gainera urtero bostehun mila pezetako interesak ordaindu beharra dagoela ta, ezin bestean, ordain sistema apurtxo bat aldatu behar izan dabe diruzainek. Hain zuzen, hemendik aurrera kuota zehatzak jarriko dira, 25, 50 eta 100 pezeta hilabeteko, familia bakoitzaren ahalmenaren arauera*.

Aginaga

Aginagarrak eibartarrak ei* dira. Izango dira bai, baina ez lxxuako hegoaldeetik begiratuta, Iparraldetik baino. Esan gura dogu, aginagarrek euren burua eibartartzat daben artean, hegoaldeko eibartarrak gutxi baino ez garaela eurekin gogoratzen. Hain zuzen, esku lotu eta begi itsu Aginagara eroanez gero, zenbat eibartarrek eza gutuko leuke Aginaga auzoa?

Dana dala, urte barruan aginagarrak eibartarragoak bihurtuko jakuz, edota eibartarrak aginagarragoak. Barinaga zehar, Markinatik Eibarrera datorren bide berritik, eskuin aldera eta gorantz kilometro eskas batez, Aginaga bertaraino izango baitogu* karretera.

«Helga»

Urtarrilaren* 12an, S. C. R. Arrateko areto* txikian, «Helga» izeneko filme ospetsua ikusteko aukera izan dogu. Jende asko zan, gainezka aretoa: ez dau S. C. R. Arratek alferrik egundainoko propaganda egin. Beharbada, ez zan beharrezko; hala ere...

Filmea interesgarria iruditu jaku, interesgarria ezezik harrigarria. Haurraren* sortzea, hastapenak* eta ondorengo eboluzioa, mirari bat balira legetxe* ikusi ahal izan ditugu aurrez aur. Izan ere, nahiko miraria bizitza bera.

Gazte asko zan ikusleen artean, gazteek berezko baitabe* jakin-mina. Hala ere, beldur gara, askoren jakin-nahia ez ote dan ikus-mina baino besterik. Penagarria, baina egia: ez al da gizakumea abererik handiena?

Txirridulariak

Baletz eta ezetz, ezetz eta baletz: eztabaia makurrak erabili ditue agintariak eta Eibarko Txirridulari Klubekoek. Epelgez lehendakari jauna zigortua zala ta, beste izkutukorik ere ba zala ta, nork daki zer azpijan dabilen hor zehar. Irakurri ere Irakurri genduan, Eibarko Klubeak ez ebala aurten txirridulari probarik eratu.

Geroztik, giroa aldatu bide* da. Beste «maila» batetako Jendea ere sartu ei* da nahastean. Azkenean, «formalismo», «konbentzionalismo», eta irakurleak gura dituan «ismo» guztiek irabazi bide* dabe, eta zorioneko Euskal Herriko Txirridulari Jira eratu dala dirudi, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Errioxa eta Nafarroa baino ez bada behintzat Euskal Herria.

ALBISTARIAK

BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarit zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zure dirugordetzerako:

Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao
 Telefono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90
URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko
 Madrilako ajentzia: I. C. C. A. Alcalá, 27
 Telefono 2 21 49 95

Arratia

1. *Berrlro hemen natorkizue,
denok barkatu mesedez.
Nonbait erratzen banaiz ere, gaur
mintzatu nahi dut zentzunez.
Arratiarrok, alda gaitezen,
Joan aurrera ta artez;
bestela zihur mendi gainera
egundo ere heldu ez.*
2. *Hltzak samurrak bai darabilguz,
ahoak ederki dlo.
Zenbat berbaldi gozo liralnak!
Danari ezlia dario.
Balna hltz horreek egiteakln,
agertzen dira arerio;
maitasun ona urrun lagata,
zenbat sasi amodio.*
3. *Ez dut egnen* bertso politik,
zerbait argi esan baino.
Argi esanda, sarritan dago
bete barik oraindino.
Arratiako euskal jendea,
egiak zer ote dino?
Harek dinona, haran* honetan
bizl ta bete noraino?*
4. *Gezur zltalez hltzen bazabiltz
nonbait hala zure hitza,
gezur horri ez eman mesedez
inoiz lndar ta garaltza.
Azaluskerltz, sasi lanakin
ez llundu lnon bizltza.
Aurrez aur honela badinozu,
gero bestela ez mintza.*
5. *Oso lantsua bazara ere,
ez uste goren zarela.
Beste asko be jazo lelteke,
jarri ezker horrela.
Apaltasuna behar dugu guk,
zuzen ez goaz bestela;
horretarako bazter dagigun
harrokerla ustela.*
6. *Askok herri hau maite dugula
sari dnogu bihotzez;
balna herriak ez du slnesten,
ez baltugu malte zinez.
Maltakerla daramagu* ta
ez gabiltz, ez, maitasunez.
Arratiarrok, horrela balitz,
maltatu lelteke errez.*
7. *Askatasuna nahi baduzu,
munduan balta ongarrl,
mesedez, jauna, beste lnor zeuk
zeure azplan ez jarri.
«Nik zuri eskatu horl egltako»
jazotzen zalku lar sarri.
Holan bagabiltz, Euskal Herriak
jarral beharko dau jarri.*
8. *Arratiarra, malte egizu
gure euskera kutuna.
Hlzkuntzaren garaltza osoak
hur dakar askatasuna.
Zintzo bazabiltz, lortuko duzu
nolzbalt gaur gura dizona.
Horregatik, trebe izan zaltez
justizlaren laguna.*
9. *Dantza tokitlk dantza toklra
betl bagabiltz guztlak,
ezln lzanen* ditugu lortu
Herriaren gurarlak.
Geure eskuetan dagoz biharko
glitz gogor eta katlak,
zarratu edo irekitzeko
Euskal Herriko atlak.*

Gernika

Urtero, Erregeen egunean, jai polit bat egiten da Gernikako zaharren egotetxean, bertako zaharren eta beste guztien pozgarri.

Aurten ere, holan ospatu izan da, eta haundikiro ospatu ere «Uso Zuria» taldeari esker. Talde honek dantzari, abeslari, kitarra jotzaile, txistulari eta antzerkilaria ditu. Neska-mutilez osoturik dago. Hamabi urtekoak dira gehienak, eta seihoak gutxienak. Zer esanik ere ez, dana egiten dabe euskeraz. Baita presentazioa ere. Jaiaren programa honetaraxe izan zan:

Nesatillek: zozo dantza eta uztal dantza. Unberto eta Maite-nak: arin-arin eta porrusalda dantza. Miren, Gotzone eta Luisak: Anttoni eta Antton, eta Haurtxo Maitea abestiak.

Mutlilek: zortzikoa eta banakoa. Maite, Anabel eta Isabelek: Parisetik Nator abestia, eta antzerkitxo bat. Arantzatxu eta Amaiak: arin-arin eta porrusalda dantza. Josu eta Marisabelek: Erromeriara Joan, eta Haurtxo Haurtxoa abestiak.

Antzerkilariek: Belengo Jaiotza, berbaz eta kantuz. Martin txistulariak: Maritxu. Mutlilek: launakoa eta binakoa. Neskatillek: zinta dantza.

Eta amaitzeko, guztiek batera, sei txistulari tarteko zirelarik, «Ikusi Mendizaleak».

Jai honek —hirugarrenez egin izan da aurten— gero eta hots* haundiagoa dauka Gernikan eta bere inguruetan. Aurten, ia ez egoen jendearentzako tokirik. Monjak arduraz ibili ziren, guztiak onartu nahiez, jarleku bila etxe guztian. Eta zaharrak, umeak jostailuekin baino askozaz pozago. Ba irudian, urte osoan egun harexen begira egon zirela. Hain adi, hain arretaz* egozen, egiten zan guztiari begira! Amaitu zanean, eskuak jasoaz eta agur eginaz, «datorren urterarte» eta «eskerrik asko» esaten eban batek baino gehiagok. Eskerronak eraginda, negar malkoak begietan nabarmen agiri ziren.

Neu ere eskerrak eman beharrean nago, era honetan gure gaixo ta zaharrek gomutatzen diren «Uso Zuria» taldeko zuzendariari eta talde guztiari. Bai eta gaztetxo honeen guraso guztiei ere, jai hau eurakatik hain ederra izan dalako.

DEUNORO

Bilbo

Euskal Hit Parade

Juan Manuel Ares Jaunak zuzentzen dauan «Hit Parade» honek indar handia hartu dau, eta Bilbotik Euskal Herri osora zabaldu da.

Oraintxe bertan hartu dogu 1970. urteko erresultaduen zerrenda. Hara zer agertzen dan:

Euskal kantari bakarra eskatuena: Xabier Lete.
Talderik eskatuena: Argoitia neba-arrebak.
Abesti eskatuena: «Ikusi Mendizaleak».

Kantari bakarren artean musikalena: Fernando Unsain.
Taldeen artean musikalena: Mocedades.

Abesti musikalena: «NI ez naiz ni».

Kantari bakarren artean herrikoiena: Benito Lertxundi.

Talde herrikoiena: Urretxindorrak.

Abestirik zabalduena: «Aitorren hlzkuntza zaharra».

Udako abestia: Andoniren «Maite zaitut neska».

Baserriaren alde

Inginadore* agronomo dan Bernardo Mesanza Jaun bilbotarrak hainbeste lan argitaratu dau gure baserriarren alde, Bilboko Komertzio Kamarako aldizkarian, bai eta «Economía Vascongada» aldizkarian ere.

Bizkaian 18.000 familia ditugu 15.000 baserri etxetan bananduta, eta euskaldunak guztiak. Gure anaion bizi maila jasotzeko, gaurko teknikaren jakintza eman behar jake, eta horixe egiten dau Mesanza jaunak.

Bilboko egunkariak

Nik ez dakit zergatik, baina Bilboko egunkariak ez ditue gauzak argi esaten. Barcelona eta Madrillekoek, oster, beste itxura bat dabe. Hemengoek isiltzen dituen gauzak, hareek esaten ditue. Zergatik?

Euskaltzaindiaren batzarrea

1971.eko urtarrilaren 29an, bere hilabeteroko batzarrea egin du Euskaltzaindiak, Donostian, goizeko hamar ta erdietan, Diputazio-ko jauregian*. Erabilitako gaiak hauk* izan dira:

1. Aita Antonio Zabala euskaltzainak txosten bat irakurri du bertsolarien txapelketei buruz. Duela zenbait* urte, txapelketa hoik* ez dira gehiago egin, eta, gaur egitekotan, zernolako eragozpenak gaindu behar liratekeen eta abar aztertu du. Batzarreak erabaki du, Alta Zabalak berak eta Joan Mari Lekuonak, biok elkarrekin, estudia dezatela txapelketa hoik berritzeko modua, horretarako behar lizatekeen era berria eta abar proposatuz. Hurrengo batzarrerako ekarriko dute jaun hoiek plan zehatz bat, txapelgo* hoik eratzeko modua.

2. Jean Haritschelhar euskaltzain ordeak aditzera eman du, zernolako urratsak* eman diren, Euskaltzaindiaren ordezkari bat Baionan jartzeko, eta nola Departamenduko Kontseilu Jeneralak diru laguntza eman duen horretarako. Batzarreak erabaki du, Pierres Lafitte euskaltzain iauna ordezkari bat horretarako buru izan dadin.


3. Gero, Alrontso Irigoien euskaltzain eta liburuzain jaunak beste txosten bat irakurri du, Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean dagoen liburutegiaren egoeraz. Bertan azaltzen du, liburutegi hori nola ordenatu, aberastu eta itxura batean jarri behar lizatekeen eta abar, Ikertzaileek* eta hizkuntza estudioetan dabilzanek kontsulta ahal dezaten. Ontzat eman da txostena, eta Euskaltzaindiak ahal deza-keen neurrian asmo horri laguntzea erabaki da.

4. Giza solna hiztegia, andereñoek prestatua, presentatu da. Donostlako bulego* buru diren euskaltzainek hiztegi hau azter de- zatela erabaki da. Hoiek beren azterketa lana egin dezaten, bat- zarrera aurkeztuko* dute, honek azken epala eman dezan.

5. Jarralan, Carlos Santamaria euskaltzain laguntzalle jaunaren txostena irakurri da, Iruinean egingo den Symposium delakoari buruz. Symposium hau, Jakina den bezala, katalan, galego eta euskera hizkuntzen ordezkariekin batean egin nahi da. Symposium tripla edo aurrerapena, martxoaren 5, 6 eta 7an, Iruinean bertan izanen da, gero udazkenerako Symposium bera prestatzeko.

6. Azkenik, Bizkalko Aurrezki Kutxak, bere urrezko ezteiak* dirrela ta, 25.000 pezetako emaitza, sariketa bat jartzeko eskaini* duela aditzera eman da. Euskaltzaindiak diru horrekin sariketa bat jartzea erabaki du, literatura gaia duen entselu bat euskeraz egiteko. Sariketa horren zehaztasun eta oinarriak, apropos egindako sariketa deian jarriko dira.

(Euskaltzaindiko Prentsa Bulegoaren Agiria)



Hikaren alde

Guztiok dakigu, euskeraz ZU izenordeaz* gainera ba dagoela beste bat: HI. Baina zoritxarrez azken hau gero eta guttiago entzuten da Bizkaian, kostaldean batez ere. Eta hau oso penagarria da.

Euskerak maskulinorik eta femeninorik la guztiz ez duela kontuan hartuta, literaturarako ezin premiazoagoa dateke* hikako hizketa hau kontserbatzea, honetan bai maskulinoa eta bai femeninoa agertzen baita*. Honela, neska-mutil bi elkarrekin hizketan ari direla ta, **ba zekiat** irakurtzean, berehalaxe dakigu, neska dela mintzatzen dena, esan ez arren ere; eta **ikusit dinat** moduko formak berehalaxe adierazten dauku, mutila dela neskari mintzatzen zaiona. Zuka eginez gero, honela jarri beharko genuke: «**Ba dakit**, esan zion neskak mutilari», edo ta «**Ikusi dut**, erantzun zion mutilak neskari».

Hikako hizketa hau falta du guztiz espainolak; baina ba dira beste hizkuntza batzuk, euskeraren antzera, hika moduko formak dituztenak. Araba eta hebraikoa, esate baterako, euskeraren antzekoak dira puntu honetan.

Dakigunez, hika emakumezkoen erruz galtzen ari* da toki askotan, neskek eta amek dotoreagotzat dadukatelako zuka egitea. Hau oso penagarria da, eta are* gehiago, **zu** delako hori frantsesezko **vous** (ingelesez **you**) moduan sartu zela euskeran, pentsatzen badugu.

Jatorriz ume tikiel, bost urteak arte, zuka Irakatsi izan zale Euskal Herrian; baina, sei urtetatik aurrerantzean, beti hika. Gurasok beti erabili dute hika seme-alabei mintzatzeko, eta bai nebarre- berek elkarrekin. Baina, errespetuz, seme-alabek zuka erabili dute gurasoenganako.

Ikastoletan ez da somatzen batere giro onik hikarako, eta hau tamalgarria denik ezin uka. Agian* andereño batzuek, munduko arrazoirik handienarekin, nahiko lan dadukatela haur erdaldunel zuka irakasteaz erantzunen* daute; baina ume euskaldunekin ari direnak, guttienez, saiatu beharko lirateke hikaren alde ahaleginetan. Ipar aldeko euskaldunek guk baino maizago* darabilate.

Elizak, nolabait*, hikaren kontrako giro bat sortu ukan* du, hika deabruari, gorrotoz eta mesprezioz, egiteko erabiltzean. Zergatik ez dakigula, Sabindarren eskolak berak ere, dotore ez delakoan edo, hikaren kontra jokatu du. Oraino ez da beranduegi, saia gaitzen guztiok euskera Jatorreko hizketa aberats hau berriro berbizten. Jakinera dezagun, ez dela hikakoa hizketa zatar bat, eglazko euskeraren Ispilua baizik.

XABIER KINTANA

dadukate, **dauke**
darabilate, **darabile**
dauku, **deusku**
dautate, **deuste**
dezagun, **daigun**
zale, **jake**
zaio, **jako**
zion, **eutsion**

Euskal kantuaren eguna Heletan

Joan dan urtarrilaren* 24ean, Baxe Nabarreko Heletan, euskal kantari honeek Jardun ebón «Gauden Bat» aretoan*: Etxamendi, Larralde, Sarasola, Irigarai, Carrère, Ospital eta Heletako Etxeberrri anaiek.

GALDAKANO

Santa Aguedaren jaia dala ta, Eliza berria egiteko diru batzen ibili izan dira Bengoetxetarrak, Mariano Barrenetxea jaunak zuzendurik; kantari honeek 16 neskato-mutiko eta neska mutil gazte batzuek izan dira 11.000 pezeta batu ziran.

"ANAITASUNA" ALDIZKARIAREN BIGARREN INKESTA

Gauza zaila* benetan, euskeraz ezer argitaratzeal
Hori ondo daki euskerazko aldizkari nahiz libururik argitaratu
duenak.

Arrazoiak? Argi dago: euskaldunok gutti gara, eta gainera, euskalkietan* sakabanatuak. Bestalde, euskaldun askok ez dakite euskeraz irakurtzen ez idazten. Azkenik, gehienon nagitasuna eta indiferentzia.

Gure inkesta* honek bi asmo ditu:

—zuen eritziak jakin.

—zuek geure lanari lotu.

Zuen eritziak jakitea beharrezko iruditzen zaiku, gaurko euskaldunen egoera ta pentsakera zeintzuk diren aztertzeko. Eta zuek

geure lanari lotzea ere beharrezko, guztiok bat eginik, geure aldizkaria eta euskal kultura osoa gora jasotzeko.

Gure Lehenengo Inkestari, zuetariko askok erantzun zenioten. Geure eskerrik beroenak guztiok.

Milaka zarete gure harpidedun. Mesedez, erantzun guztiok Bigarren Inkesta honi. Har ezazue boligrafoa, eta erantzun hemen-txe bertan. Gero, ebaki bildur gabe paper hau (atzean anuntzio bat jarri dugu, zuen kolezioa osorik gera dadin), eta bidal ezazue gure zuzenbidera:

ANAITASUNA
Jardin Txikerra, 1-1.^o
BILBAO-12

Eta gehiago gabe, hona hemen gaurko galderak:

1. Non eta norekin ikasi duzu, euskeraz idazten eta irakurtzen?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. Zure eritzi, beharrezkoa da euskeraren batasuna? Eman arrazoiak.

6. Zure eritzi, zeintzuk ilburu edo ilburu klase falta dira euskal literaturan?

.....

.....

.....

.....

.....

3. Zer deritza ANAITASUNako euskerari?

7. Egiezu kritika bat, gaur egunean argitaratzen diren euskal liburu, aldizkari eta diskoel.

.....

.....

.....

.....

.....

4. Zer proposatzen duzu, ANAITASUNAREN harpidedunak gehiagotzeko?

8. Zure urteak:

Sexua:
Ezkondua?
Ikasketak:
Ogibidea:

Mila esker, adiskide. Eta zeure laguntza eskalntzen badaukuzu,

hara zer egin zenezakeen:

—eskatu geuri harpidedun txartelak, eta zeure adiskideen artean zabaldu.

—eskatu autoetan ipintzeko letreroak, eta zeure kotxean eta zeure lagunenean jarri.

5. Atsegin duzu ANAITASUNAREN linea ideologikoa? Egin kritika zehatza.

ETORKIZUNAK KEZKATZEN BAZAITU

SARTU EIZUZ ZURE DIRUAK

G E S T E V A L - E N


FONDO DE INVERSION MOBILIARIA



Garantizatzen ditugu:

1. IRABAZI ONAK
2. DIRUA ESKUAN
3. INBERZIO ZIHURRAK

Ez euki alfer-egonean zure diruak



Gure diruak BANCO ATLANTICO-K
babesten ditu.

Argitasun gehiagorako, idatzi naiz deitu:
GESTEVAL, Fondo de Inversión Mobiliaria.

Particular de Estraunza, 3, bis 1.º

Tel. 41 59 12 eta 41 37 66

BILBAO-11

I. HIZTEGIA

Ale honetan izartxo bategaz agertzen diren berbak

IMANOL BERRIATUAK

ADIN, edade.
ADITZ, **verbo**.
ADIZKERA, **forma verbal**.
ADIZTEGI, **cuadro de formas verbales**.
ADOS, konforme.
AGERKARI, **publicación periódica**.
AGIAN, nonbait, hurrean, **probablemente**.
AHUL, makal.
AHULEZIA, makaltasun.
AINITZ, asko.
ALEGIA, **es decir, esto es, a saber**.
ANDANA, talde.
ARABERA, arauera, **según, conforme**.
ARAUERA, arabera, **según, conforme**.
ARE, oraindino.
AREAGO, oraindino gehiago.
ARETO, **sala, salón**.
ARI IZAN, jardun.
ARITU, ari izan, jardun.
ARMADA, **ejército**.
ARRAS, guztiz, zeharo.
ARRETA, **atención**.
ASKI, nahiko.
AURKEZTU, presentatu.
AUSNARTU, **rumiar**.
AZOKA, feria.
AZTI, **adivino**.

BAITA, bait da, da ta.
BAITABE, bait dabe, dabe ta.
BAITEBAN, bait eban, eban eta.
BAITEZPADA, derrigorrez.
BAITOGU, bait doqu, dogu ta.
BAITZAI, bait zaio, jako ta.
BAITZEN, bait zen, zan eta.
BALEA, **ballena**.
BEDEREN, behintzat, behinik behin.
BEHAR, lan.
BER/Z, hori dala ta, **por consiguiente**.
BEREZIKI, batez ere.
BILAKATU, bihurtu.
BIDE, antza, nonbait, agian.
BILDU, batu.
BILERA, batzar, **concentración**.
BOZ, **votación electiva**.
BULEGO, **oficina**.

DABILKEZ, dabilta nonbait.
DAGITE, dagie, egiten dabe.
DAGOKE, dago nonbait.
DARAMAGU, daroagu.
DATEKE, da nonbait, **parece ser**.
DIRENO, diren bitartean.
DUKEZUE, duzue nonbait.

EBATZ, ebatzi, **resolver**.
EDUKI, euki.
EGINEN, egingo.
EGUTEGI, **calendario**.

EI, omen.
EKAIN, bagil, **junio**.
ELE, esamesa, **habladuría**.
ELKARGO, elkarte, elkartasun.
EMANEN, emango.
EMEKI, geldiro.
ENGOITIK, honez gero.
ERAGOTZI, **impedir**.
ERAKUNDE, **institución**.
ERANTZUNEN, erantzungo.
ERANTZUNKIDETU, **corresponsabilizarse**.
ERORI, jausi.
ERRAI, **entraña**.
ESETSI, **atacar**.
ESKAINI, eskini, eskeini, **ofrecer**.
ESKUALDE, **comarca**.
EUSKALKI, **dialecto vasco**.
EZKONGE, **soltero**.
EZTEI, estegu, **boda**.

GANBIATU, kanbiatu.
GARNU, **orina**.
GOGO IZAN, nahi izan, gura izan.
GOITI, gora.

HAIK, hareek (**haiek** aktibo, **haik** pasibo).
HALABER, **igualmente**.
HARAN, **valle**.
HASTAPEN, **comienzo**.
HAUK, honeek (**hauek** aktibo, **hauk** pasibo).
HAUR, ume.
HAUTATU, aukeratu, **elegir**.
HAUTESKUNDE, **votación electiva**.
HAZIL, zemendi, **noviembre**.
HELBURU, **fin, objetivo**.
HELDU, **próximo**.
HEZIALDI, training.
HEZIERA, **educación**.
HOIK, horreek (**hoiek** aktibo, **hoik** pasibo).
HOTS, a **saber; fama, renombre**.
HURBIL, hur.

IHAUTE, **carnaval**.
IKERTZAILE, **investigador**.
IKERTU, aztertu.
INGINADORE, **ingeniero**.
INKESTA, **encuesta**.
IRAGARPEN, **anuncio, profecía**.
IRAIL, **septiembre**.
IRAULTZA, **revolución**.
IZADI, **creación, universo**.
IZANEN, izango.
IZENORDE, **pronombre**.

JAUREGI, palazio.
JIPOI, **chaqueta**.

KALAPITA, eztabaida.

KAZETARI, **periodista**.

LABORARI, nekazari.
LEGETXE, letxe, bezalaxe.
LEGEZ, lez, bezala.
LILURAGARRI, **encantador**.

MAIZ, sarri.
MEMENTO, **momento**.
MENDE, **siglo**.
MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente**.

NABARITU, **advertir, notar, estar patente**.
NABARMENDU, **distinguirse, destacarse**.
NOLABAIT, zelanbait, **en cierto modo**.
NOSKI, naski, **seguramente, claro, no hay duda**.

OHI, **ex**.
OHI IZAN, **soler**.
ORDEA, ostera, berriz.
OSTEAN, ondoan, ondoren.
OSTERA, berriz.
OTSAIL, zezeil, **febrero**.

PARADA, **ocasión, oportunidad**.
PAUE, **Pau**.

SOIL, **puro, simple, mero**.
SOR, sortu.

TALAIA, **atalaya**.
TAULARI, **actor teatral**.
TXAPELGO, txapelketa.

UDAL, **ayuntamiento**.
UKAN, euki, izan (**trantsitibo**).
UKANEN, ukango, eukiko.
UNADA, bolada, **periodo de tiempo**.
URRATS, pauso.
URTARRIL, **enero**.
USAN, **sanguijuela, sangsue**.
UZTAIL, **julio**.

XAPELGO, txapelketa.
XEHETASUN, **detalle**.

ZAIL, gaitz, gatx.
ZEGOKEEN, **estaría, debía de estar, estaba al parecer**.
ZELAKO, nolako.
ZENBAIT, batzuk.
ZEREN, (ETA), ze, **pues**.
ZERGATIA, **razón, motivo**.
ZIOEN, inoan, esaten eban.

II. PUNTU BATI ERANTZUNA

ZUZENDARITZAK

Behin baino gehiagotan galde egin daukute, ea zergatik erabiltzen diren aldizkari honetan, euskera batuan idatzitako artikuluko guttietan, Hegoaldekoak ez diren adizkera* batzuk, hala nola, **dauku, zeutan, diezon, zaiku, zitzaikun**, eta abar.

Gure ustez, ez da bidezkoa, euskera batua egiterakoan, orain arte erabili diren zenbait* arrazoi bakarrik kontuan edukitzea. Hoieta-ko arrazoi bat da, gipuzkerazko aditza*, hizketaz eta izkribuz, orain-ago memento* honetan erabiliena dela.

Gure eritziz, ba dira beste arrazoi batzuk ere —beharbada handiagoak— haintzat hartu behar direnak; areago*, orain moldatzen ari garen euskera batua, hurbil* dagokeen* beste memento hobe batetarako ere izanen* baita*.

Azken arrazoi hoiengatik, hain zuzen ere, onartuak izan dira gure artean H letra eta beste zenbait gauza, hemen Hegoaldean erabiliak izan ez arren. Halaber*, Euskal Idazleen Elkarteak adiztegi* bat proposatu zuen, Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoako aditza —bereziki Lepurdikoa— oinarritzat zuena.

Adiztegi horretan, kasu batzuetan, bi aditz sistema agertzen dira, eta aukerabidea uzten da, sistema bateko zeln besteko aditz formak hautatzeko*. Guk, kasu hoietan, Lapurdi-Nafarroako sistema aukeratu ondoren, beti era horretara idaztea erabaki genuen, Irakurle ezikasien kaltetan sistema bien arteko nahasmendua sor* ez zedin eta aldizkariak ere batasuna ukan* zezan. Horregatik, bestela idazten duten idazleek barkatuko daukute, beren artikuluetan aditz sistema hori erabiltzen badugu.

Gure ustez, oso komenigarri da pluralismo koordinatu bat euskal aldizkariaren artean, bakoitzak bere sail berezian lan eginez eta elkarri lagunduz, euskeraren problematika osoa ahalik ondoen denon artean ebatz* dezagun.

Ondo daude, beraz, euskalkiak zaindu eta landu nahi dituzten aldizkariak. Ondo, Euskaltzaindiak azken hitza eman arte, era batera zein bestera euskera batua moldatzen ari direnak ere. Guztiok dugu helburu* bera: euskera bizi dadila. Lan egin dezagun, bada, bakean eta elkarren oneritzian, geure euskera benetan maite dugun anaiak bezala.

IPAR ALDETIK BI BERRI

Deretxo eta ekonomiako lehen goi-ikasetzeari Baionan

Joan den urteko irailean irekia izan da Baionan deretxo eta ekonomiko lehen goi-ikasetzeari. Baionarentzako garrantzi handia ukanen du ikasetzeari honek, bai eta Ipar Euskal Herriarentzako ere. Eskola haundi hau Paueko Unibertsidade edo Ikasetzeari Nagusiari loturik dago, orain; baina erreklu pentsa daiteke, egun batez azkartuko dela eta Ipar Euskal Herriko Ikasetzeari Nagusi bilakatuko.

Oraindik, ehun ta zortzi ikasle ba dira, eskola horretan sartuak direnak. Ikasgaiak arratsaldeko seirak eta zortziak arte emanak dira. Izena emana duten ikasle hoietan, ba dira 39 Baionako, 23 Angeluko, 18 Biarritzeko. Gaineratekoak, mendi aldetik eta Lande-etarik heldu direnak dira. Adina, 18 eta 66 urte artean mugatua da.

1.982 talde museko xapelgoan

Urte guztiez bezala, aurten ere «Union Basque» deitu batasunak muslarien arteko xapelgo bat muntatu dauku. Aurten, orainarte ez bezalako muslari andana bildu da museko xapelgo horren inguruan. Azken kondatzeek, 1.982 talde ba zirela salatzen zeukuten. Zer andana ederra! Ez bakarrik Ipar Euskal Herrian, bai eta Frantziako hiri haundietan diren euskaldunek ere (euskera ez dakitenek berdin) parte hartzen dute xapelgo horretan.

Euskal Herriko karta joko zaharrak holako Indarra baldin badu euskaldunen biltzeko, zenbaterik gehiago ez luke ukan behar, egundaino bezain gazte agertzen zaikun euskera zaharrak? Ez da dudarik, museko xapelgoak okupatzeko diren gizonak euskalazale suharrak balira, engoitik zerbait jokabide aurkituko zutela, musarekin batean euskeraren zabaltzeko. Ez bailukete segur parada txarra, alfabetatze bati lotzeko.

Euskal kulturazko batasunek hartu duten diru laguntza

Ipar Euskal Herrian ez da, segur, euskal kulturaren aldeko batasun eskasiarik. Eta funtsean hainbat hobekuntza, aspaldikoak dira; eta beste batzuk, arras berriak.

Kultura aldeko talde aintzen edukitzea, izan daiteke dudarik gabe bizitasun baten ageria; baina izan daiteke ere ahuleziako seinale bat, guztiak elkarrekin batean ariko ez direno. Itxura guztien arabera, ba dirudi, elkartasun edo federaziorako bidea egunero gehiago agertzen ari dela, kultura sailean ere.

Kultura talde hoiek guztiek —aurten ba dira zazpi— guti edo aski diru jasotzen dute Pauen biltzen den Kontseilu Jeneraletik. Hona, aurten talde bakoitzak zenbat diru hartu duen:

IKAS: 30.000 franko berri.
Halze Garbian: 3.500 Fb.
SEASKA: 4.000 Fb.
Donibaneko Ikasleak: 2.500 Fb.
Kanboko Ikasleak: 2.000 Fb.
Amaya: 3.000 Fb.

Senperen aro berri

Senpere dugu Lapurdiko herri eder bat, bi mila jendez gotti duena. Jende gehiena laboraria da. Herri honetan laku bat edo urgeldi bat eginez geroztik, izan da ele eta kalapita. Baina eleak eta kalapitak orotako ekarpenak dira, eta ez dira baitezpada beti ondorio txarrekoak gertatzen. Dirudienek bederen, Senperen gazteria sano bat sortarazi dutela ez da ezin ikusizko gertakizuna.

Gazterla horrek adinetako batzuen laguntzarekin muntatu berria du «Aro Berri» izeneko batasuna. Zer dagite, batasun honetan barne direnek? Herriko harat-honata ikertu eta Herriko interesak zaindu gogo dituzte. Ez da, segur, helburu apala. Eta helburu horretarat lasterrago heltzeko, alkate bozetarako lista edo herriko kontseilu berri bat muntatu daukute. Heldu den martxoan ikusiko, senperetarako kontseilu berria zaharra baino nahiago dutenentz.

«Noiz» antzerkia emeki muntatzen

Sail honetan berean aipatu genuen, orain duela denbora zenbait, nola Daniel Landart adiskide gureak antzerki berri bat argitaratu zeukan, «Noiz» izendatu zuena. Orain ari da lan eta lan bere taldearekin, antzerki horren muntatzen. Ez dugu beldurrik, zerbait ederrik aterako daukula, zeren eta oroitzen baikara, joan den urtean «Bai ala ez» antzerkia nola eman zeukuten. Joan den urtean bezala, aurten ere taularien moldatzale hor ditugu Telesforo Monzon eta Pettan Elizalde jaunak.

GEXAN LANTZIRI

dauku, deusku
daukute, deuskue
zaiku, jaku
zeukun, euskun
zeukuten, euskuen

ARABAKO DIPUTAZIOA ETA EUSKERA

Urtarrilaren 16an, Jaime de Altubek oso idazlan polita azaldu zuen, Donostiako «La Voz de España» egunkariak Arabari eskaintzen dion orrian.

Uste izan dut, ANAITASUNAREN irakurleentzat on izango dela, idazlan horretako zenbait puntu ematea.

Diputazioaren hitzak

1968.eko otsailaren 20an, «Olabide» taldearen sortzea erabaki zuen Diputazioak, bere kultura sailaren barnean.

Bi helburu izango zituen talde honek: euskera zaindu eta zabaltzeko; Olabideri, Gasteizko seme denez gero, merezi duen omena eman.

Helburu hau eskuratzeko, «Olabide» taldearen lehenbiziko eginbeharra, euskera irakasteko Akademia bat sortzea izango zen.

Gero, euskera non eman, noiz, nola, zein metodorekin eta abar, dena argi gelditzen zen zenbait artikulutan.

Gasteizen bakarrik ez zen izango, gainera. Probintzia osora zabalduko zuen «Olabide» taldeak bere lana, herri bakoitzeko alkateei laguntza eskatuz.

Jende nagusientzat ikastaroa prestatu ondoren, haurrak ere kontuan izango zituen, beste probintzietan egiten dutenaren antzera.

Azkenik, behar ziren gramatika, liburu eta abar ikasleentzako eskulan jarriko ziren, hauek erraz ordaintzeko modutan.

Honaino hitzak, hitz ederrak.

Ekintza gabeko hitz hutsak

Altubek jarraitzen du, esanez, ezertxo ere ez dela bete hitz hoietatik. Eta, oraindik txarrena dena, Gasteizen sortu diren iniziatiba partikularrei ezertan ere ez diela Diputazioak lagundu nahiz izan. Eta ikastolen exenploa ipintzen du.

Bere hitzetan: «Partikularrek sortu dituzten eta bikoizki eusten dieten ikastolei ez die Diputazioak ezertan lagundu, nahiz eta hor ehunga haur seriozki gure asaba zaharren hizkuntza ikasten ibili. Gure eritziz, Diputazioak esku zabalez lagundu behar lioke iniziatiba pribatu honi».

Eta honela bukatzen du: «Diputazioak mesede handia egingo lieke ikastolara doazen haurrei, hauek behar dituzten eskola liburuak emango balizkie».

Eta orain zer?

Idazlan honek inor asko mugituko duen esperantza handirik ez dugu. Diputazioaren burua lehengo lepotik den bitartean, interesak eta ekintzak ere lehengo bidetik joango dira. Eta bide hoiek ez dira gureak izango.

Dena dela, ezagutzen ez dudana Jaime de Altube horrek txalo bero bat merezi du, beste inork aipatzen ez dituen —edo aipatu ezin dituen— gaiak, berak, bere talalatik eta bere erara, aipatzen dituelako.

Aurrera geure aldetik

Goitik laguntza etorriko den esperantzarik ez den bitartean, azpikoak bere aldetik ahal duena egin beharko du. Haurrentzako ikastolak eta jende helduentzako gau eskolak ari dira lanean, ahalleginean. Gero eta sendoago jarraitzeko asmotan eta esperantzaz, gainera.

Gasteizko gazteriararen artean ez dugu inolaz, horrelako euskal girorik eta euskera ikasteko gogorik ikusi.

Baina problema latza gainean dugu: irakasle falta. Aurten bertan ere. Eta datorren urtean, zer esanik ez.

Dei bat zuzentzen dautzuet Gasteizko euskaldunoi: gerta zaitzete ahalik lasterren eta ongien, datorren urtean euskera irakasle izateko.

EUSEBIO OSA

ballzkie, baleutsez
die, deutse
diete, deutsee
dio, deutso
lieke, leuskioe
lioke, leuskio